




ARGIA



NOLA JANTZI INOR ZAPALDU GABE

EUSKAL HERRIKO HIRU ADIBIDE JASANGARRI


ENDE GELÄNDE: ALEMANIAKO EKIMEN DESOBEDIENTE ERRALDOIA

TARANA KARIM, SOS ARRAZAKERIA: "ASKOK ESPERO DUTE HEMENGOAK BEZALAKOAK BIHURTUKO GARELA"

MARTIN GOITIANDIA, TRENAK LARRI ZAURITU ZUEN MOZAL LEGEAREN AURKAKO EKINTZAILEA



Egunero lan berriak sareratzen ditugu
2.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.




Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.




Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.



Ekitaldiak

Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Cedric Herrou, mugalari humanitarioa

IRITZIAK

- 17 Mikel Zurbano
- 18 Ramon Etkezarreta
- 19 Jose Inazio Basterretxea Miren Artetxe
- 20 Angel Erro



Hamabi urteko ibilbideari amaiera emango dio Napoka Iria bikoteak.

(ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: KEPA RUIZ-MIRAZO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Tarana Karim, Azerbaijangoa Hernialden: "Hemengoek ere hurbildu behar dute kanpotik etorri garenongana" / Danele Sarriugarte Mochales
- 21 | Moda jasagarria: Etiketak moztu, etikak josi / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 26 | Laura Wollny: "Mundua klima aldaketatik salbatu nahi badugu, kapitalismoari amaiera eman behar diogu" / Lukas Barandiaran San Roman
- 28 | Martin Goitiandia, Mozal Legearen aurkako ekintzailea: "Arriskua beti dago, baina ezin gara ezkutatu gerta litekeenaren beldur" / Axier Lopez
- 30 | Zintzarriak eta joareak: Zarata ala musika? / Iñaki Sanz-Azkue
- 32 | Bake Prozesua Frantziako hedabideetan: Gaingitu beharreko harresia / Jenofa Berhokoirigoin
- 34 | Oñatiko ikasleak galdezka: Zergatik du hizkuntza batek beste batek baino botere handiagoa? / Ainhoa Ortega Bretos
- 36 | Askapena, 30 urte mugaz gaindi eragiten / Iker Oñate Aiausti
- 44 | Napoka Iria: "Jakín behar da egindako bideari bukaera ematen, berriak irekitzeko" / Lander Arretxea Bereziartua
- 47 | Arte iruzkina: Francisco Iturrino / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.

Erredakzioa: Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asumendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industriaidea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginaz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

EMT **Información de Autobuses** bus information **PARADISE PLAZA**

PARADA 5542

40 140

AVISUS

5€

PANORAMA

Gaztetasunaren apologia

Zeinek ez du gazte izan nahi? Edo hobe esanda, zeinek ez du gazte itxura izan nahi? Telebista piztea besterik ez dago, zahartzaroa osasun kontuei, zaintzari eta aisialdiari lotuta ikusteko, baita ustez zerbitzu publikoa eskaintzen duten kateetan ere. Menpeko jarretara kondenatuz, adinekoari izaera politikoa ukatzen diote sistematikoki. Publizitatea da horren erakuslerik argiena. Gorputz "zaharra" –eta bereziki emakumearena– baztertua da, ez da atsegina, ez da salgarria, ezkutuan gorde beharrekoa da. Iruditeria publikoaren jabe anorexiaren mugarekin jolasten ari den emakume photoshopatua da. Geure buruari egindako gezur bisuala, gizatasunari eta bizitzari berari parez pare ez begiratzeko tranpa gozoa. Itxura faltsua da, baina ahaltsua.

Argazkia: Olmo Calvo · Testua: Axier Lopez





Azkoitiko Aizpurutxo auzoan hondakinak biltzen dituen kamioiaren bideoa zabaldu dute: herritarrek gaika sailkatutakoa kamioi berean nahasten du kamioiak.



"Birziklapena axola zaionaren itxura eman nahian ari da Azkoitiko Udala (kanpaina berria ere jarri du martxan). Lotsagabe hauek edozertarako prest daude errauskailuari jaten ematearren!"

Azkoitia Zero Zabor



"Arazo larriak izan dira Azkoitiko hondakinetan inpropio kopuru handia zegoelako ontzi arinetan eta organikoan, eta hartutako erabakien artean dago landa eremuko ekarpen guneetako hondakin mota guztiak errefusarekin biltzea"

Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea



"Izugarria da, gauzak gaizki egin nahian, zenbat aitzakia jarri behar diren"

@lturbe_pedro



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Planaren aurkako epaia

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

EAEko Auzitegi Nagusiak bost artikuluko baliogabetu ditu, besteak beste, kontratazio administratiboarena eta diru-laguntza jasotzaileen betekizunena. Foru Aldundiak epaia errekurrituko du.

Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak, Mikel Irizarrek, adierazi du Auzitegi Nagusiaren epaian arrazoi teknikoak erabiltzen direla sarri eta idazketaren interpretazio estua egiten dela: "Epaia artikuluko horiek baliogabetezko ematen dituen argudioek ez dute gure hizkuntza politikaren funtsezko irizpideen aurka egiten". Irizarren iritziz, baliogabetutako bost artikuluetan auzitegiak administrazioarekin

harremanak gaztelaniaz izan nahi dituen herritarraren eskubideak ikusi ditu arriskuan. Aldundiak azpimarratu du inoiz ez dela erreklamaziorik izan gaztelaniaz harremanak nahi dituen herritarren aldetik, eta aldiz, "gurekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarren kexak eta erreklamazioak jaso izan ditugu".

Baliogabetutako bost artikulukoak eta horietan jasotako gaiak ondokoak dira: komunikazio instituzionala (5. art.), kontratazio administratiboak (8. art.), diru-laguntzen jasotzaileen betekizunak (9.3 art.), argitalpenak (11. art.) eta internet eta intranet sareak (13. art.).

Euskara Plana 2017ko hondarrean amaituko da eta Foru Aldundiak baliogabetutako artikuluetan egokitzapen teknikoak egingo ditu.

"Ez dugu jende pasiboa nahi festibalean"

PAULINE GUELLE, EH-ZKO BOZERAMAILEA

Aurten ere, Lekorneko gazteluaren bueltan egingo da musika jaialdia, ekainaren 30etik uztailaren 2ra. Guilleren hitzetan, "helburua ez da jendea erakartzea, gure izpirituarekin bat egiten duen egitaraua osatzea baizik; ez dugu jende pasiboa nahi festibalean eta publiko aktiboa lortzen ahalegintzen gara egunean zeharreko egitarauarekin". Parte hartuko duten musika taldeetan parekidetasuna zaindu dute eta "baloreei lotuta, eredu kapitalistez harago joan beharra dugu. Bestelako laguntza eta eredu bitartez egin behar dugu bideragarria den eredu bat". Horregatik guztiagatik, EH-Zk "Ipar Euskal Herrian eta Euskal Herri osoan betetzen duen rola ezinbestekoa" da. **ARGIA.EUS (2017-06-21)**



Duela 26 urte ARGIAK argitaratu zidan <LOHIODOLA> KOMIKIA, San Inazioaren mendeurrenaren-kari:



eta ondoko asteetan hainbat gaitzespen IRITSI ERREDAKZIOA:

San Inazioz farre

ARGIAREN Zuzendari jauna agur:

Otsailaren hiruko ARGIA-z zera esan gura nizuke: Nik bezain ongi edo hobeki dakizun bezala, San Inazioz farre eta burla egiten irudidun horrialde bat ateratu duzuela.

Errespetuaren eta gizalagerearen jokabide prestuak hankapean hartuz, lotsagarritzko karikatura bat egiten duzuela gure patroiz handiaz, letrez eta dibujoz baliaturik.

Beraz, zuen jokabide makurra gaitzesten dudala esan gura dizut. Ez da zilegi zuen irakurleen sentimenduak horrela ofenditzea. Xabierreko saildu handi eta euskaldun bikainari —bere sendi guztiak nafar askatasunaren alde azken ordu-raino borrokatu zuelarik— «Praxku Xabierrekoa» deitzea burla zikin bat besterik ez da. Espero dut, mindu dituzuen irakurle guztiei barkamena eskatuko diezuela publikoki.

Jon Etxaide

Irakurle mindua

JON Etxaideren haserrearekin bat nator, otsailaren 3ko Argian San Inaziori buruz argitaratu duzuen komikia dela eta. Komiki horrekin katoliko izateari irain egiten zaiola derizkiot, eta marrazkiz apaindua egoiteak ez duela hor esaten dena zilegiztatzen. Erabili den bitartekoa hitza bera baino sarkorragoa izanik, iraina handiagotu besterik ez du egiten.

Mindu dituzuen irakurle guztiei publikoki barkamena eskatuko diezula espero dut nik ere.

ebastian Uriagazpia)

Nik erantzun nien <ARTEAREN MUGAJARTZAILEEI> KOMIKIAZ, GALEANOREN KONTAKIZUNA DINARRI:



eta joanak joan, ez dut ahazteko ARGIA beti ondoan ukan nuela

... ez zen azken aldia izanen...

eske



Besteak beste, gastu militarra norberaren zergetatik dirurik ez bideratzeko modua da eragozpen fiskala.

Alternatiba eraldatzaileak bultzatzeko, objekzio fiskala

Xalba Ramirez
@xalbaram

Eragozpen fiskaleko kanpaina abiatu dute aurreko ere hainbat elkartek EAEn. Errenta aitorpenean gastu militarrei eta azpiegitura handiei uko egin eta bidezko proiektuak finantzatzeko kanpaina honek iaz 100.000 euro desbideratzea lortu zuen Espainiako Estatuan. Helburuekin bat egiten duten herritarrak laguntzeko zerbitzua eskaintzen dute www.eragozpenfiskala.org webgunearen bitartez eta horretarako EAEn jarritako bulegoetan. Miguel Angel Martinez Bilboko KEM-MOCeko kidea ari da kanpainaz arduratzen: "Lehenik eta behin argi utzi nahi dugu ez dela zerga gutxiago pagatzeko kanpaina bat. Errentaren aitorpenaren bitartez, bidezkoak ez diren aurrekontuen finantziazioari uko egitea da. Honela, gastu militarri, bankaren erreskateari, mugen militarizazioari, Abiadura Handiko Trena eta halako makroegiturei... doakien dirua, izaera eraldatzaile eta solidarioa duten alternatibak lagundu eta bultzatzeko bideratzen da. Bakea, justizia soziala, feminismoa, antimilitarismoa... oinarri duten proiektuetara bideratu nahi dugu dirua".

Urrats teknikoak pixka bat konplikatuak izan daitezkeenez, arreta zerbitzua eskaintzen dute eta errenta-aitorpena doan egiteko aukera. "Edozein kopuru erabaki dezakegu eta ondoren kopuru hori nahi dugun elkarteari eman. Ekintza honen helburua, esan bezala, ez da zerga gutxiago ordaintzea, baizik eta desbideratze bat egitea. Horregatik egin dugun diru sarreraren ordainagiria igorri behar dugu aitorpenarekin batera Diputazioari, nahi izanez gero gure ekintzaren zergatiak esplikatzen ohar batekin".

Desobeditzearen ondorioak

"Desobedientzia zibilak bidezkoak ez diren legeei aurre egitea dakar eta eragozpen fiskala hori da, irregulartasuna. Beraz, Ogasunak harrapatuz gero atzera botako digu, normalean nahastu garena esanez, eta batzuetan %5eko "zigorrarekin" -ohartarazi du Martinezek-. Horregatik desbideratzen duguna neurtu behar dugu eta gure gain hartu dezakegun kopurua izan behar da, guk normalean 84 euroko eragozpen sinbolikoa gomendatzen dugu. Jende askok zalantzak izaten ditu, baina guk beldurrik ez izatera animatzen ditugu. Izan ere, oso gutxitan botatzen dute atzera, ogasunarentzat oso zaila delako irregulartasun guztiak kontrolatzea".

EKONOMIAREN TALAIAN

Burujabetza sozialaren alde



Juan Mari Arregi

ELA eta LABen idazkari nagusiek, Adolfo Muñoz eta Garbiñe Aranburuk, Gasteizko parlamentuko Autogobernu Ponentzian hitz egin dute, eta ondoren ohar bateratua kaleratu, aldarrikatuz estatus berri bat "eremu soziolaboral eta soziopolitikoan eskumen erabatekoa izango duena". Agerraldi hori garrantzitsua da momentu honetan, eta balio izan du erakusteko bi sindikatuak burujabetza sozialaren alde egiten dutela apustu. Ekintza sindikal bateraturantz egiteko asmoan beste urrats bat ere bada, euren kongresuetan adierazi duten bezala.

Sindikatu abertzaleen ustez bistakoa da beste estatutu erreforma soil bat langileen gehiengoarentzat iruzurra litzatekeela: Madrilgo politika zentralizatzailea, autogobernuari egindako murrizketak, Estatutua ez betetzea, eta transferitutako eskumenak eta Kontzertu Ekonomikoa erabiltzea EAJ, PSE eta PPren eskutik enpresa eta kapital erreteiei mesede egiteko.

Egoera hori aldatzeko ezinbestekoa da legeak egin ahal izatea lan harremanak eta babes soziala oinarri hartuta. Horrela bermatuko dugu "gure jendarte eta lan ereduaz erabaki ahal izango dugula", edo "politika fiskal, ekonomiko eta sozialak ezartzeko gaitasuna izango dugula". Eta hori guztia, ikusi dugunez, ezinezkoa da aurrera eramatea Espainiako Estatuarekiko aldebikotasunetik. Sindikatuak prozesu sozial burujabe bat egin nahi dute aldebakartasunean oinarrituta, Euskal Herria subjektu politikoa dela onartu eta "bere marko juridikoa libreki erabaki". Seguruenik sindikalgintza abertzalea berriz erasoko dute "politikari sartzegatik", baina sindikatu bezala eskubide osoa dute jendartearen eraketan parte hartzeko.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Fermin Muguruzaren aldarria

DONOSTIA. Bere ibilbidea saritzen duen Adarra garaikurra jaso du Fermin Muguruza musikari eta zinegile irundarrak, txistu artean hartu duten Eneko Goia Donostiako alkatearen eskutik. Muguruzak gaztetxeei eta gune autogestionatuei eskaini die saria. Ildo horretan, Kortxoenea gogoratu dio alkateari, eta baimenik gabe geratzeko arriskuan dagoen Egia auzoko Le Bukowski aretoa zaintzeko eskatu. "Gaztetxerik gabe ezingo zen ulertu nire musikari ibilbidea".

Eskola librearen egoera normaltzeko eskatu dute

Xabier Letona

@xletona

Hezkuntza Berrikuntzarako Nafarroako Plataformak eskola libreetako proiektu pedagogikoaren oinarriak azaldu eta egun bizi duten egoera alegala bideratzeko eskatu du Nafarroako Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean.

Eskola libreak

Hainbat dira eskola libreak Nafarroan. Horien artean ezagunenetakoa, duela 12 urte sortutako Tximeleta. Azken urteetan sortuak dira, besteak beste, Ur Tanta Iltzarben, Taupa Taupa Olartzan, Kimuak Arterranedo Waldorf Elortzen.

Legeztatzea helburu

Egoera alegalak euren jarduera mugatzen duela-eta, Gobernuari eskatzen diote harreman bati ekitea ikusteko zein nolako harreman mota izan dezaketen administrazioarekin euren egoera erabat legeztatzeke.

Prekarietatea

Eskolen egoera prekarioa ere aipatu dute: irakasleek 1.000 euroren bueltan kobratzen dutela, gurasoek 200-300 euro ordaintzen dituztela hileroko... Horiez ere jardun nahi dute Gobernuarekin, euren errealitatea eguneratu eta hobetzeko.

INDARKERIA
MATXISTA



1.777

dira 2017ko lehen hiruhilekoan Hego Euskal Herrian indarkeria matxista jasan duten emakumeak.

%10,2
igo da kopurua urtebetean, 2016ko lehen hiruhilekoan 1.596 biktima erregistratu baitzituzten.



KANPO-PROBAK

EAEko hiru ikastetxetik batean ez dituzte Eusko Jaurlaritzak ezarritako kanpo-probak egin. Maiatzaren Lehen Hezkuntza eta DBH amaierako ebaluazio-azterketak deituta zituen Jaurlaritzak 90 ikastetxetan, baina 27tan ezin izan dute proba egin, ikasle gutxiegi egon dela eta.



AMNISTIAREN ALDE

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Kontrako Mugimenduak deituta, 1.500 bat lagun bildu ziren Bilbon, Gararen arabera. Atxikimendua adierazi zuten 10 euskal preso politikoen argazkiak izan ziren ibilbidean zehar.



HARRO

Sexu Askapenerako Egunaren harira (ekainak 28), ekitaldi ugari antolatuta ditu LGBT+ komunitateak. Tartean, Bilbao Bizkaia Pride jaialdia, aniztasun afektibo-sexual eta generoduna ospatzea eta "maitasun eta izaera librearen aldeko topaketa" egitea helburu.

Cedric Herrouk ez daki iheslariak abandonatzen mugako mendietan



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Frantzia eta Italia arteko mugan, Ventimiglia eta Metonen goiko aldeko Roya ibarreko herrietan bizi diren jendeak, gune minbera batean kokatu dituzte geografiak eta gobernuek migrazioak oztopatzeko erabakitako neurriek: autopistaz edo trenaz ezinda, milaka errefuxiatu afrikar paperik gabeko barneratzen dira paraje menditsuotan Parisera arin iristeko ametsaz. Antzina kontrabandoa ezagutuko zuten haran honetan orain asko dira mugalari humanitarioak. Hona baten istorioa.

Maiatzak 24, asteazken goiza Breil-sur-Roya (Frantzia, Italiako muga) herriko tren geltokian. Sudan, Txad edo Somaliatik iritsiak dira, gerra, miseria eta diktaduretatik ihesi. *Nice Matin* egunkariko Benoit Guglielmik sarean jarritako bideoan aurpegi irribarretsua ikusten zaie.

Gehienak Cedric Herrou baserritar gaztearen etxaldean daude aterpeturik, Roya haranean. Bezperan dei egina zien agintariei, ia zienta bat lagun joango zirela agintarien esku beren buruak jartzera. Berak eta Roya Citoyenne elkarteak boluntarioek lagunduko diete bidaian, ordubete trenaz Nizaraino.

Nizan etorkin ilegalekin batera prentsaurrekoa emango dute boluntario eta abokatuek, iheslariontzako soluzio global eta efikazak eskatuz. Ondoren, etorkin eta laguntzaile, Estienne-D'Orves natur parkera doaz, *pic-nic* txiki bat jan, janzkiak banatu eta legezko paper kontuak egiten elkarrekin hasteko. Frantsesez, ingelesez, beste hainbat hizkuntzatan interprete inprobisatuekin... funtzionarioengana joan aurretik lanak aurreratuta eramateko.

Front Nationalekin indar handia du Itsas Alpeen departamenduan. Eskuinak salatu du boluntariook beren laguntzarekin etorkin ilegal gehiago erakartzen dutela Frantziara. "Hori pitokeria da -dio Herrouk- ondo begiratzen baduzu guk agintariei laguntzen diegu nolabaiteko kontrol bat edukitzen Frantziara iristen diren etorkinez". Poliziak parke-

tik kanporatuta, nonbait pasa beharko dute hurrengo gaua: prefetaren egoitzaren aurreko plazan egon beharko dute. Paper eskariak aurkeztuta, erantzuna jaso arte onik irauteko boluntarioen laguntza beharko dute.

Cedric Herrouk ez du jokabidea aldatu joan den urtarrilean bertan auzitegiek 3.000 euroko isuna eta zortzi hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten arren. "Ezer ez egiteak gizakion aurkako krimenaren konplize bihurtuko ninduke", esan zion juleari epaiketari, gutxienez 200 etorkin ilegal pasatzen lagundu zuela aurpegiatu ziotenean. 1979an Nizan sortua, *neorrurala* da, kaletik mendira etorritako baserritar berria. Olibak eta oiloen arrautzak merkatuetan saltzetik bizi da. *The Guardianek* apirilean aurkeztu du Herrouk eta bere lagunak egiten duten mugalari lana *Haraneko errebeldeak* (*The Valey Rebels*) dokumentalean.

Hasten da jarraituz auto txiki baten ibilera gaez Italiako muga aldeko errepide bihurrietan. Telefonoz deitu diote Herrouri. Leku jakin batera iritsitakoan, sei iheslari afrikar azalduko dira ilunpetik eta kotxean sartu. Horrela izaten da gu askotan muga alde honetan.

Urtarrilean espetxe zigorra -bete beharrik gabekoa, berriz okerrik ez egitekotan- jaso zuenean, kazetariak galdetu zioten ea jarraituko zuen: "Arazoak segitzen baldin badu, nik berdin jarraituko dut. Jendea daukat etxean eta zaindu behar dut. Ez dagokit bereiztea

zuriak eta beltzak, legezkoak eta ilegalek. Ez da nire lana, ni baserritarra naiz, nire lana da jendea elikatzea".

Herrouk Roya haranean dauka etxaldea, eta poliziak mugak itxi dituenetik hortik pasatzen dira Frantziara Italiako azken geltokiraino, Ventimigliaraino, iritsitako etorkin gehienak. Lehenbizikoz atxilotu zuten zenbait andre eta ume eritrear Ventimiglian hartuta etxeraino eramateagatik, polizia italiarrek frantsesei jakinarazita. Orduko hartan prokuradoreak erabaki zuen ekintza humanitaria egin zuela.

60 iheslari kanpin humanitarioan

Geroztik Herrouk Roya Citoyenne elkarrekin babesean laguntzen du. Laster, jendea iritsi eta iritsi, 60 baino gehiago baserri txiki baten inguruetan ahal bezala aterpeturik, elkarrekin hasi zen etorkinak sartzen SNCF tren konpainiaren instalazio abandonatu batzuetan. Bigarren atxiloteta orduan, okupazio ilegaleagatik eta etorkinak Frantzian legearen kontra sartzeagatik.

"Hiru eritrear adin txikiko zeuden karabana honetan bideo bat ikusten, heldu ziren poliziak eta *taka!* eraman zituzten. Etorkinak erabiltzen dituzte kartoizko kaxak baidiran, traban baldin badaude hartu hemendik eta eraman horra. Baina gizakiak dira! Jendeak, beren iragan eta desioekin, familiak zain dauzkatenak, gizon bat edo emakume bat elkar maite dutenak, beren haurrak eta gurasoak maite dituztenak, Italian geratu edo bi-





'The Guardian' egunkariaren 'The Valley Rebels' dokumentaletik hartutako irudian, Cedric Herrou Breil-sur-Royako plazan agur esaten bere etxaldean aterpetuta eduki duen iheslari eritrear bati, Roya Citoyenne elkarteak agintariekin errefuxiatu multzo baten egoera nola edo hala moldatzeko bermea lortu ondoren. Iheslariak, lehenago, kameraren aurrean laburbildu ditu sorterritik mendiotara iritsi arteko ibilaldi latzaren xehetasunak.

dean hil zaizkien gurasoengatik negar egiten dutenak. Ez dira kartoizko kaxa puta batzuk!". Baina traba egiten dute.

Libian milioi bat migratzaile daude zain, bakoitzari lau edo bost mila euro kobratuta Saharaz beheko herrialdeetatik kontrabandistek ekarrita. Handik Mediterraneoa zeharkatuz Lampedusa uharte italiarrera. Hemendik Italiako lehorrera, penintsula behetik goraino zeharkatuta Frantziako mugara iristeko.

Ventimiglia eta Menton arteko tren eta autopistak oso kontrolatuta daudenez, etorkin asko saiatzen dira Roya haranetik, Italiako lurretan itsasoratu baina Frantzian sortzen den ibaiaren arroan gora: Breil-sur-Roya, Saorge, Tende, Sospel... Errepideak bezain traketza da hemen muga.

Bailarako herritarrek ehunka etorkin eman diote babesa. Nathalie eta

Raphaël antzerki munduan dabilta eta etxera bidean gauez aurkitu dituzte sarri, berdin elurretan galduta. "Lehenbizikoz norbait hartu nuenean, bazkalondoko 14:30ak ziren, ni haur txikiarekin nindoan eta bidean ikusi nuen norbait oinez sekulako ekaitzaren erdian. Hiru ziren, oso gazteak. Hartu beharra neuzkan. Gau osoa oinez emana zuten, trenbidean zehar. Nora zihoazen galdetuta 'Parisera' esan zidaten, baina kontrako norabidean zihoazen, 'ez zoazte Pariserantz, berriro Ventimigliara zoazte' eta hori entzundakoan lehertu egin ziren".

Errefuxiatu bakoitzak dakar historia bat kontatzeko, sarritan irrifarrea erabat galdu gabe gertakizunik latzenak azaltzeko, gerrak, kanporatzeak, kartzela aldiak, torturak, itsasoaren zeharkatze dramatikoak, urpean lagatako lagunak... Askok adin txikikoak dira.

The Guardianeko kazetariak filmatzen ari direla, Herrouk Breileko plazan arrautzak saltzen dituen bitartean, jendarmeak etorri zaizkio. Kortesiazo bostekoa. Elkarrizketa surrealista. Elkarlan derrigortuan ari dira mugalari boluntario susmagarria eta beren bueruek urrun agindutakoak lekuan aplikatu behar dituzten poliziak. Ageri da elkar errespetatzen dutela. Diote poliziek autobus bat datorrela adin txikiko errefuxiatuak aterpetxe batera eramatera, non daude, ez daukat mobila deika hasteko, ekarri behar dira gaztetxoak, nola ez duzue aurretik jakinarazi, deitu adin txikikoak aterpetuta dauzkaten guztiei... Poliziak zerrendak osatzen, autobusak zain, mutikoen besarkadak boluntarioei, eta badoaz. Baina etorkin asko da Europarako bidean, uholde hau ez da agortuko. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Tarana Karim, Azerbaijangoa Hernialden «Hemengoek ere hurbildu behar dute kanpotik etorri garenongana»

Batzuetan, halaxe datoz gauzak. Ostiralerako egina duzu hitzordua Tarana Karimekin, Tolosan, han baitabil eragin eta astindu aktibista azerbaijandarra, eta zenbait egun lehenago, galderak prestatzen ari zarela, hara non Mursegok bi kantu zabaltzen dituen, Oiongo herritarrekin batera eta elkarbizitza sustatzeko ondu duen diskoaren aurrerapen. Elkarriketara bidean, ezin ezipainetatik kendu egoerari propio jarria dirudien doinua: "Ni ez naiz zu / eta zu ez zara ni / baina biok batera bagara".



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hasteko, zure burua aurkezteko eskatu nahi nizuke.

Tarana Karim naiz, azerbaijandarra, han jaioa eta hazia. 15 urte egin ditut Euskal Herrian bizitzen, ikasten, nire umeak hazten... Nire bizitzagatik edo jatorri ezberdina dudalako, egunerokoan borroka egitea eta estereotipoak apurtzea tokatu zait, beraz duela hainbat urte borrokalari bihurtu nintzen, kanpotar eta emakume bezala bereziki.

Zuzenbidea ikasi zenuen jaioterrian; horrek ba al du loturarik zure borroka-gri-narekin?

Nik esango nuke nire borrokatzeko grina neure egunerokotik datorrela, beharretik. Zuzenbidea ikasi ala ez, horrek eragiten du, noski, badakizu zeintzuk diren zure eskubideak, baina pertsona bezala, momentu batean konturatzen zara gauzak ezin direla horrela izan, aldatu behar direla eta badagoela beste modurik gauzak egiteko.

Nolatan etorri zinen hona bizitzera?

Gaskeagoa nintzen eta nire gizartean oztopo batzuk aurkitu nituen lan aldetik. Han nengoela, nire bikotekidea ezagutu nuen, eta hemengo zen. Donostiara iritsi nintzen, eta hortik jarraitu dut.

Zer oztopo aurkitu zenuen jaioterrian?

Azerbaijan, herri bezala, oso polita da: natura, kultura aberatsa... Turismoa egiteko, ederra da. Bertako jendearentzat, berriz, gero eta traba handiagoak daude; gaur egun diktadura bat da: ez daukazu askatasunik, internet kontrolatuta dago, komunikabideak itxi dituzte, gauzak egin nahi dituen jendea kartzelaratu... Nire garaian, lanera eta unibertsitatara sartzeko orduan, ustelkeria handia zegoen, eta okerrera egin du horrek ere. Dirurik ez badaukazu, ezin zara unibertsitatara joan ezta ametsetan ere; ofizialki publikoa da, doakoa, baina diruaren bidez funtzionatzen du denak. Hango jendearentzat oso zaila da bizitza.

Tarana Karim

Julfa, Azerbaijan, 1977

Ikasketaz abokatua da Tarana Karim; ostalaritzan eta itzulpengintzan jardun da besteak beste, eta gaur egun aktibismoan ari da buru-belarri. Bizitzak hala ekarri duelako, orain 15 urte Euskal Herrira etorri zenetik hainbat elkartetan ibili da boluntario, hala nola Caritasen eta Gurutze Gorrian. Orain dela hiru urte Ana Yurd izeneko emakume-elkartea sortu zuen, munduko emakumeak biltzeko, eta Tolosako Emakumeen Etxearen Aldeko Taldean ere badabil. Bi urte egin ditu SOS Arrazakerian lanean, eta, hori baino lehen, lau urtez aritu zen elkarbizitza bultzatzeko Bizilagunak proiektuan dinamizatzaile. Aisialdian, ipuinak kontatzen ditu: hura aditzeko aukera, Hernani Hitzetan jaialdian.



Zer moduzko bidea egin duzu hemen?

Iritsi nintzen hizkuntza jakin gabe eta niretzat oztopo handia izan zen. Lan egiteko garaian zorte ona eduki dut, baze goen beti norbait ingelesez moldatzen zena, eta berehala hasi nintzen lanean. Iritsi eta lehen lau urteetan, lana eta etxea, horiek ziren nire guneak, baina gero umeak jaio ostean ez nintzen hainbeste aritzen kanpoan lanean, eta denbora eman zidan hainbat gauzari buruz pentsatzeko. Parkera, liburutegira edo dendara joatean, konturatzen zara gizarteak nola hartzen zaituen. Jende askok espero du hemengoak bezalakoak bihurtuko garela, hemengoek bezala jokatu dugula: hori prozesu bat da, eta prozesu hori egin nahi izanez gero, akaso zure bizitza osoa behar izango duzu horretarako. Edonola ere nik argi daukat ez dudala hori nahi: ez dut inor bihurtu nahi, nik nahi dut nire bizitza bizi tokatzen zaidan bezala.

Nola hasi zinen hemengo gizartean zeure tokia egiten?

Filtro moduko batzuk jartzen dizkizute: lehen, euskara zen filtro bat niretzat. Bertako pertsonak bildu ohi diren lekuetan, kanpoan geratzen zara. Ni hasi nintzen pentsatzen ea nola sar nintkeen toki horietan, zeren gizarte honek bizi naiz, baina badirudi ez nagoela. Umeak pixka bat hazitakoan hasi nintzen Tolosako Udalak antolatzen zituen egitasmoetan parte hartzen, nire iritzia ematen... Gizarteko kidea naiz eta nahi dut dagokidan toki horretan egon, eta kontuan har dezatela nire iritzia.

Euskara ikasi zenuen, filtroa pasa zenuen, eta gero...

Euskaldunak biltzen diren lekuetara iritsi nintzen, eta hasieran harrituta begiratzen zidaten, baina gero ikusi dute hainbat gauzetara joaten naizela, eta ohitu egin dira. Egitasmo askotan nabili, saiatzen naiz parte hartzen eta nire kolektiboaren iritzia eramaten. Udalek esaten dute berdintasunaren alde dardela, bai, baina bertakoei ematen zaizkien aukerak agian kanpotarrei ez diete balio, beste behar batzuk dauzkagulako. Kanpotik etorritako emakumeek ez daukate hainbesteko sarerik eta hainbat egoeratan beste behar batzuk ditugu: hori kontuan hartu behar da politikak egiteko garaian. Bestalde, udalak edo elkarteek gauzak antolatzen dituztenean



ez dute kontuan hartzen beste gizarte batetik datozen pertsonak beste erritmo bat daukatela: denontzako egitasmoak antolatzen dituzte eta esaten dute kanpotarrak ez direla joaten. Tira, agian kanpotik gatozenok ez ditugu gauzak horrela egiten: joan zaitez beraiengana, galdetu, ezagutu....

Azkenaldian Europako hainbat hiritan gertatu diren erasoen ondoren, alderik igarri duzue?

Gaia okerrera doa. Musulmanak atera gara esanez eraso horiek egin dituzten pertsonak ez direla musulmanak baizik eta terroristak, eta uste dut horregatik gauzak argitu direla gizarteko arlo batzuetan behintzat, baina sare sozialetan, adibidez, egurra ematen digute ezker-eskuin. Gainera borrokan ari garen emakumeoi topikoak botatzen dizkigute, musulmanei eta matxismoari buruz: ez ditugu zertan halakoak onartu, baina nik ez diet halako pertsonen azalpenik eman nahi. Ulertu nahi baduzu nik zer egiten dudan,

gustura azalduko dizut. Baina nahi dut hurbiltzea, ni neu hurbiltzen saiatzen naizen bezala euskal ohituretara. Bi alde-takoa izan behar du ahaleginak, hemengoek ere jarri behar dute interesa.

Gogoan duzun egoera desatseginik?

Adibidez, behin ertzaintzara joan nintzen, nire etxean lapurrak sartu zirelako, eta ertzaina hasi zitzaidan galdetzen ea bizi nintzen etxe hori alokatuta ote neukan, eta ea diru-laguntzarik jasotzen ote nuen, zeren hala izatekotan alokairuarena aitortu beharra neukan... Esan nion ogasunarekiko betebeharrak ondo beteak neuzkala; eta gainera, ertzaintzaren lana ez da hori: ni salaketa jartzera joan nintzen, lapurtu egin zidatelako. Baina zapia daramadanez eta abizen ezberdina daukadanez... Etxeberria edo Aranburu bat joango balitz, ez liokete halakorik esango. Hala ere, horrelako esperientziek, eta ez bakarrik nireek, ingurukoenek ere, tresnak ematen dizkizute, halakoak gertatzen direnean zer



Zenbat buru, hainbat aburu

“Gure testua, Korana, gizonen interpretatu dute, eta begiratzen baduzu nola bizitzen den islama Iranen, Turkian edo Indonesian, ez dute berdin egiten: liburu bakar batetik baldin badator dena, zergatik da hain diferentea? Interpretazioak direlako. Adibidez, feminismo islamikoan dabilzan emakumeak, arabiera ondo ezagutzen dutenak, Koran originala ari dira ikertzen, genero-perspektibarekin, luparekin. Nik ez dakit arabieraz, baina hizkuntza horretan hitz batek hainbat esanahi izan ditzake: gizonen, gehien interesatzen zaizkien esanahiak hartu dituzte, eta horri beste ikuspuntu batetik ere begiratu behar zaio”.

egin jakiteko. Halako egoeretatik ikasi egiten duzu, eta badakizu non jarri behar dituzun mugak.

Halako bizipenak beste batzuekin konpartitzea lagungarria al da?

Bai, gainera, beste emakume batzuek askotan kontatzen dute momentuan ez zutela jakin zer egin, eta orduan joaten gara elkarrekin, edo erantzuteko moduak aztertzen ditugu. Batzuek pentsatzen dute kanpotarrei edozer gauza esan dakiekeela, eta ez.

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren gaiak ere harrotu ditu hautsak.

Diru-laguntza hori edo beste edozein gauza kobratzeko baldintza batzuk bete behar dira: baldintza horiek betetzen badituzu eskubidea daukazu jasotzeko, eta kitto, berdin du nongoa zaren. Beste gauza bat da zenbait baldintza direla medio bertakoak kanpoan geratzen direla, laguntzak modu jakin batean antolatuta daudelako: hori ez da kanpotik etorri de-

naren errua. Gobernuari eskatu beharko litzaioke baldintzak aldatzeko edo laguntzak beste modu batean antolatzeko.

Hona etorri zinenez geroztik, askotariko lanak egin dituzu, ezta?

Kanpotar asko bezala, behetik hasi nintzen. Ostalaritzan ibili nintzen hasieran, eta 2003an hasi nintzen aktibismoan eta boluntariotzan, hona iritsi eta urtebetera, gehienbat kanpotarrak zebiltzan tokietan. Ostalaritzako lana 15 ordu da egunero, bizitza osoa pasatzen da han, baina tarteak neukanean boluntario aritzen nintzen. Gero klaseak ematen aritu nintzen, ingeles eta errusierako hizkuntza-eskoletan, eta ondoren, Eusko Jaurlaritzak proiektu bat jarri zuen martxan, kanpotik etorritako umeentzat, eskolan lau hilabetez laguntza emateko: itzulpenak egin, azterketetan haiekin egon, medikura haiekin joan... Horretan aritu nintzen Gipuzkoako hainbat herritan, besteak beste Irunen, Andoainen eta Zizurkilan.

Iftar

“Iaz, Ramadan bitartean, iftar bat antolatu genuen kalean, meskitarekin batera. Jateko momentua da iftar: egunean zehar ez dugu jaten eta edaten, eta gaua heltzean egiten dugu. Plazan egin genuen eta alkatea ere gonbidatu genuen, jendeak ikus zezan zer den, beldurra baitaukate beti ea zer egiten ote dugun meskitan, ea magia egiten dugun edo zer [barreak]. Kalean egin genuen dena: erreztatu, jan, hitz egin, zalantzak argitu... Beldurrak uxatu nahi genituen, batzuk nahiko urduri daude eta”.



MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
*Zure momentu
zailetarako*

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañadi Gotzaina kalea, 27 - Oñati

**EKONOMIA SOZIAL ETA
SOLIDARIOA MASTERRA**

UPV/EHU DONOSTIA

PLAZA LIBREK DITUGU

www.gezki.eus



UPV/EHUko Gizea
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatibaren Institutua
Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

tradebi@tradebi.com



SOS Arrazakerian lan egiten duzu orain. Nola hasi zinen horretan?

Urte eta piko egin nuen motel lan aldetik, baina lanean gutxiago ibili naitzen garaian aktibatu ditut emakumeen elkarte eta aktibismoa. Duela bi urte pasa hasi nintzen SOS Arrazakerian, eta hor lana eta aktibismoa batera doaz, ez da pastelak egiten aritzea bezala, horrelako lanak 24 orduz dituzu buruan eta bizitzan.

Zer lan-ildo jorratzen dituzu elkarte horren barruan?

Sentsibilizazioa jorratzen dugu, edozein diskriminaziori aurre egiteko, baina batez ere arrazakeriari eta xenofobiari. Arlo guztietan lantzen dugu: gizartean, erakundeetan, eskoletan... Nik proiektu hauek kudeatzen ditut: Bizilagunak proiektua, alegia bertako eta kanpoko familien edo taldeen arteko bazkariak; errefuxiatuei buruzko erakusketa, batez ere eskoletan lantzeko gaia; eta udaberriaz geroztik martxan daukagun beste egitasmo bat: "Emakume musulmana islamofobiaren aurka".

Zertan datza azken hori?

Emakume musulmanei prestakuntza-tailerrak eskaintzen dizkiegu islamofobia zer den ikusarazteko, zeren batzuek ez zuten ezagutzen: esaten ziguten gertatu zitzaizela hau, hori eta beste hura, baina ez zekitela hori islamofobia zenik. Oso emaitza onak bildu ditugu: maiatzean amaitu genituen tailerrak, eta

emakumeak, nolabait esan, esnatu egin dira, ekarpenak egiten hasi dira, parte hartu nahi dute... Hori beharrezkoa da. Ni neu bere garaian konturatu nintzen horretaz ari dira orain beraiek konturatzen: "Leku bat daukat gizartean, eta parte hartu behar dut, ahal dudanaren barruan". Guztiok ez dugu berdin parte hartuko gizartean, jakina, baina bakoi-tzak ahal duena emango du, eta dago-kiona hartuko. Uste dut gizartea hartu eta emaneko prozesu bat dela.

Nola uztartzen dira islamofobia eta genero-zapalkuntza?

Islamofobia musulmanen aurkakoa da, bai, baina emakumea zarenean okerragoa da, ahultzat hartzen zaituzte. Batzuetan, emakumeei esaten diete gizonen esan ezin dietena. Gainera, esaten digute gizon musulmanek zapaltzen gaituztela. Behin, islamofobiari eta feminismoari buruzko tailer batean nengoela, bertako emakume batek hauxe esan zidan: "Zapia jartzera derrigortzen zaituztete, ea noiz askatzen zareten!". Tailer feminista batean zegoen emakume batek, pentsa! Hauxe erantzun nion: "Aizu, goizero nik neuk jartzen dut zapi hau, ez daukat inor etxean zapia jartzeko agintzen didanik". Askotan, zapiarekin, bertako emakume asko baino askeagoa naiz. Buru barruan daukagun askatasuna, horixe da kontua; mundua nola ikusten duzun, zure bizitzaren jabe ote zaren... Horixe da askatasuna, eta ez zapia eramatea edo ez eramatea. ■

Bitcoin



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Duela aste gutxi *wannacry* izeneko birusak kaosa hedatu zuen Britainia Handiko ospitaleetan, Espainiako Estatuko telefonian eta Errusiako Barne Ministerioan. Birus gaizkileak artxiboak enkriptatu egin zituen eta egileek ordaina eskatu zuten artxibo horiek itzultzeagatik. Baina, erreskatearen ordaina gauzatzeko ez zuten txanpon arrunta edo urrea eskatu baizik eta *bitcoina*. Txanpon hau lehendik ere erabili izan da negozio ilunen ordaina gauzatzeko garaian. Bitcoina guztiz desentralizatutako ordainketa sistema bat da eta bere trukeak bankuen edo estatuen bermerik gabe egiten dira. Bere jatorriaz ezer gutxi dakigu, programatzailer batek –edo batzuek– 2009an asmatu eta bideratu zuela soilik.

Txanpon birtuala da bitcoina, protokolo informatiko zorrotza betetzen baitu 2008. urtetik. Izan ere, binakako sistema erabiltzen du on-line ordainketak egiteko, konfiantzazko hirugarren pertsona edo instituzio baten tutoretzarik gabe. Ohiko diru sisteman banketxeek elkartruke guztiak kontrolatzen dituzte. Bitcoin sisteman erabiltzaileak dira berdinen arteko edo P2P sarean argitaratzen diren elkartrukeak balioztatzen dituztenak eta era guztiz anonimoan egiten dira. Beraz, ez dago bitartekorik, ezta ere txanpon hori jaulkitzen duen instituziorik, protokoloak aurreikusten baitu bitcoinen sorrera. Bitcoinak interneteko plataforma batean erosi daitezke dibisa ofizial ugariaren truke, eskaintzak eta eskariak finkatzen duten tasan. Hots, trukagarria eta diru ofizialen lehiakidea da bitcoina. Azken buruan, txanpon “librea” da, inork ezin baitu bitcoina kontrolatu, monopolio publikoa den diru arrunta edo bankuek sortutako diru estrukturala ez bezala.

Ezaugarri hauek direla-eta, edonolako esku hartze publikoaren aurka-

Txanpon birtuala da bitcoina, protokolo informatiko zorrotza betetzen baitu 2008. urtetik. Izan ere, binakako sistema erabiltzen du on-line ordainketak egiteko, konfiantzazko hirugarren pertsona edo instituzio baten tutoretzarik gabe. Ohiko diru sisteman banketxeek elkartruke guztiak kontrolatzen dituzte. Bitcoin sisteman erabiltzaileak dira berdinen arteko edo P2P sarean argitaratzen diren elkartrukeak balioztatzen dituztenak eta era guztiz anonimoan egiten dira

koak diren ekonomialari ultraliberaletan bitcoinarekin alderatu daiteke. Hauen ustez bitcoinarekin hobariak ugariak dira: unibertsa da, edonon erabil daiteke, bitartekorik gabekoa da, elkartruke kostuak minimotzen ditu, ordainketa egiterakoan anonimotasuna gordetzen du eta, beraz, kapitalen eta zergen kontrola saihesten ditu.

Baina, txanpon birtual honen arriskua bistakoa da. Bitcoinaren sareak ez du inolako arau edo erregulazio sistemarik horrela eraikei dutelako berariaz, lege edo arau jurisdikziorik gabeko sare gisa alegia. Erregulaziorako autoritatetik ezean jendeak sarbide anonimoa du sarean eta bertan mugarik eta kontrolik gabe dihardu. Horrenbestez, bitcoinarekin erabileraren sistema ondo ulertzeko eta bere arriskuak jasateko ahalmena duten teknologoentzako da egokia. Pirateria kasuetan bezala, elkartruke sare hau maiz izan da ziber-erasoen biktimatik eta erregulaziorik ezean kalteetarako erabiltzailea erantzuteko ahalmenik gabe aurkitzen da. Are gehiago, bere balio oso hegakorra da, txanpon ofizialekin gorabehera indartsuak izan ohi ditu bere historia laburrean.

Gaur egun bitcoina, ordainketarako bitartekoa baino gehiago espekulaziorako aktiboa da, arrisku handiko aktiboa. Haatik, bere kopuruak gora egin du nabarmen urteotan, bost mila milioiko dolarreko kapitala osatzeraino. Ekonomia digitala bultzatzen ari da erakunde eta enpresa erraldoi ugariak bitcoina onartzen baitute gaur egun. Haatik, bere hedapenak eta balioztatzeak ez du urreak bezala oinarri fisikorik edo diru ofizialekin bezala herrialdearen BPGrik atzean. Zerk sostengatzen du bada? Bere balioa gorakorra izango delako ustea, eta hau da, hain zuzen ere, ohiko burbuilaren definizioa. ■

Ezin utzi, ezin hustu

Esan liteke gizarteak uko egin nahi diola aparatu politikoen praktika omnipresentzialari eta gizarte eredu horretatik ihesean abiatu dela. Behar zuen inoiz betekadaren ondorengo okada bistaratu. Iraultza abian jarrita, kontua da, norabide egokian egin ote den, helmuga egokira eramango ote gaituen, merezitako zigorra hau ote zen.

Ufadaz baliatuz alderdietako baseak –bizirauten dugun militante hondarrok– jipoi ederrak ari dira ematen zuzendaritzei eta hauen historiei. Gehiegikerian, ohikeria ustelean eta akritikotasunik endogamikoenean instalatu direla eta horiek hortik astintzen ez badira politikagintzak jai izango duen usteagatik dela uste da.

Euskal Herrian, ordea, ez da, beste mamu batzuek uxatzen nonbait, gertatu oraindik. Partidu klasikoek indarrean jarraitzen dute, agintean esan nahi da, ez baita gainerakoetan eman den zili-purdikarik eman. EAJk eternala dirudi, eskuin, zentro, kontserbadore, sozialdemokrata... mazoko karta guztiak eskuan dituela. Partidu Sozialista, nazionalismo demokratiko instituzionalaren beharrek salbatu dute, oraingoz. Hau horrela esanda, gaizki ulerturik ez dadin egon, esan dezadan behar horiek



Ramon Etxezarreta

PSE-EE-KO KIDEA

Ufadaz baliatuz alderdietako baseak –bizirauten dugun militante hondarrok– jipoi ederrak ari dira ematen zuzendaritzei eta hauen historiei

euskal gizartearen beharrekin gehien identifikatzen direnak direla.

Dena den, ezker nostalgikoak eta populismoak eragindako lurrikararen azken uhinek ere harrapatu dute alderdi sozialista eta kanpai-buelta bat baino gehiago eman beharrean gertatu da trapezioan. Harrigarriki, Espainian aldaketa usaina egoten den uneen antzeko

sinpatiak eragin ditu Pedro Sánchezen lidergorako itzuliak. Okasio horietan ez bezala euskal militanteen botoen beharrik gabe gertatu da garaipena. Andaluziak, neurri batean, eta Euskal Herriak huts egin dute hitzordu horretan.

Andaluziakoa morrontzazko botoa izan bada, etxeko aparatuarekin boto kritikorik gutxiena gure artean jaso da. Ez dakit inork horrela irakurri duen kontua, baina alarmatzekoa da aparatuarekiko manupekotasuna eta honen kontinuumoa. Euskal sozialisten diskurtso politikoan, Odon Elorza outsidersengandik harat, aldaketa eta berritzaile ez da sumatzen oraingoz. Politikagintza deskredituari eta sozialdemokraziaren krisi intelektualari aurre nola egin asmatu ezinda edo horretarako borondatea disimulatuz bizi-raun nahi balu bezala. Ez dago erraza.

Erraza ez dagoen bezala desarmatu eta politikagintza libre eta demokratikora igaro nahi dutenena. Sozialdemokrazia mesprezatu eta erasotzetik, inoiz ez bezala garaia omen, sozialdemokrata esplizitatu gabeko izateko igaro bidean doaz. Sozialdemokraten krisi intelektualek, diskurtso kontraesankorrek, preso gauzkate, Diogenes sindromearekin etxetik atera ezinda. Zenbat ganbara daukagun husteko! ■



XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2017

SARI BANAKETAREN EKITALDI IREKIA

Uztailak 8, larunbata / 12:00

**Bastero Kulturgunea
(Andoain)**



ANDOAINGO UDALA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SARIA



Zor hotza



Jose Inazio
Basterretxea
EHU-KO IRAKASLEA

Errautsak azaleratu du minbizia, modu gordinean. Ez genuen uste... baina, suak erakutsi digu ustel zirela usteak: miseria gorria dago Bilbo handi eta distiratsuaren baitan. Eta lur-gainera agertzen da hura noizean behin, gizarte-zorren zizare akusatzaile.

Askoren gustukoa ez litzatekeen eraikin degradatu batean hil dira etxe bereko bost kide, sugarretan erreta eta ke beltzetan itota... Non? Bada, Zorrotzako Landan: Athletic futbol-taldeak partidak jokatzen dituen *katedraletik* ordu laurdenera, Deustuko Jesuitek kudeatzen duten unibertsitate ospetsutik kilometro gutxira, eta Gurutzetako eskualde-ospitale erraldoitik lau jauzitara.

Zorrotzako sutean hil diren lagunen kopuruak eta beraien arteko hurbiltasun familiarak azalera ekarri du gizartean gordean daukagun arazo eta kontraesan bat: oparotasun eta joritasunaren ondoan –haren baitan eta erdian– ghettoak daukagu.

Bazterketa eta auto-bazterketa kasuak gero eta gehiago dira gure artean. Halere, kontzientziak lasai daukagu. Katastrofea heldu arte, jakina. Orduan, denak txalapartari.

Ghetto bihurtzeak bilakatzen du esklusioen gaixotasuna sendaezin eta kroniko. Hirigintzan, politika zentripetuak behar dira, zentrifugoak baino gehiago. Politika, pentsamendu eta jarduerak inklusiboak behar dira, ez esklusiboak. Ez da

erraza bazterketa-kasuetan; eta, agian, zailagoa da auto-bazterketaren kasuetan.

Edozelan ere, ez dago onartzerik horren degradatuak diren inguruak –etxe bakanak nahiz auzune oso-osoak–, ezagunak baitira arriskuak. Ez dago onartzerik inork negozioa egitea hondaturik eta umildurik diren inguru horiek merkaturatuta. Administrazio publikoek badute hitza eta eskua kontu horietan. Esnatu beharra dute; modu eraginkorrean esnatu ere.

Inoiz, inkisizio inmobiliarioarengandik ihesi, beren buruaz beste egin dute gure auzokideek etxea ordaindu ezinean, bertatik indarrez kaleratuko dituzten mehatxupear, nora joanik ez dutela. Inoiz, heriotza aurkitu dute herritarrek gau batean, bazter-auzo batean, baldintza zantzarretan bizi izanda, gizarte oparotsu honetara egokitu ezinik edo egokitu ez nahirik. Inoiz, auzotik kaleratuak izan dira auzotarrak, bestelako bizitza-eredu bat posible dela erakutsi gura izan dutelako eraikin zaharretan. Kasuistikak ez du muga argirik.

Halere, izugarria da konturatzea mingaina zein isilik daukagun immolazioen sastadak azaldu arte. Ez dugu oraindik gure egin etxebizitza eskubidea dela, propietatea bainoago. Ahula da hori bereganatzen ez duen gizarte-kohesioa. Eta, ikusteko dira begiak. Entzuteko, belarriak. Kitatzekoak, zorrak. ■

Oporren kontra



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetxe

Heldu da uda. UDA. Pozik egoteko presioaren kurbak goia jotzen duen garaia. Eta oporrak dira, egunotan, zorion tasaren neurgailu nagusi. *Zenbat denboraz. Non. Norekin.*

Joan gintezke urrutira. Oso urrutira. Abentura neurtuek ematen dute etekin gehien. Turistarik ez dagoen lekuetara joan garela azalduz gero, batez ere (paradoxa ez azpimarratzeko konbentzio sozialaz baliatuz). Edo gelditu gaitezke herria zaintzen. Argi, orde: *Aupa Etxebeste* baten susmoa har dakioke horri. Atera ezin duenak urtean zehar errekeruperatuko ditu puntu horiek, zorterik

badu, prekarietateari buruzko zurito-eztabaide-tan (soldata duindunok horri buruz ere diskurtso interesgarriagoa dugun arren, erran gabe doa). Argi gera dadila, beraz, ahal dela, nahi dugulako egiten dugula bertan goxo. Hor dugu Arbizuko kanpina, zer gerta ere (familiarrekin, bikotekidearekin, edo txarren-txarrenera, lagunekin joateko).

Kontua da uda *gozatu* izanaren kontaketa sinigarri baterako osagaiak biltzea. Besteei, hots, gure buruari sinestaraztea eraberritu garela, gure eguneroko miseriei berrekiteko aski indar bildu dugula, alegia. Zorionekoak gu. ■

Bakarra da egia

Troll-a naiz sare sozial batean, jendaurrean erakusten dudan jarrera politikoaz oso bestelako iritziak plazaratzeko. Gertuko lagun batek oparitu eta eskainitako liburu bat saldu dut bigarren eskuko liburu denda batean, eskaintza idatzita agertzen zen orrialdea erauzita. Ez diot lagun on bati inoiz kontatu bere senargiairekin sexua izan dudala, biak etxean zeudela. Auzokidearen WiFi erabiltzen dut. Nafarroako politikari garrantzitsu baten argazkia dut *streaper* batekin, inori erakutsi ez diodana, atzeratzeko une egokiaren zain. Mutil-lagunaren mugikorrek mezuak nire ordenagailutik irakurri ahal izateko sistema erabiltzen dut.

* * *

Beharbada egiarekiko harreman gatazkatsua izan daiteke gaur egungo gizartea hobekien deskriba dezakeena. Berez, edozein gizarte aldaketak egiaren paradigma aldaketa dakar. XIX. mendera arteko egia bakarraren eruditik egiaren aurpegi askotasunera, bakoitzak bere egia duelako ustekizunera, nolabait esateko, egiaren liberalizazio edo, nahiago bada, pribatizazioa. Baina zantzuak badaude hortik haragoko urratsa ematen hasi garela. Gertakizunearn murgilduta gauden heinean gaitz zaigu egiaren aurpegi berriak (post-egiak, niaren literaturak benetakotasunaren arietearekin fikzioa eraisteko lanak) zer ekarriko duen.

* * *


Nire irudiko azkenaldiko literaturan eman den paradoxa bat autofikzioak ekarri du. Fikzioak errealtatearekin eraikia zuen harremanean egiak tokirik ez edukitzeak tarte handiagoa uzten zien idazleei egiatiak izateko, barruko demonioak azaleratzeko, orain autofikzioak ezartzen duen harremanean baino. Are nork bere burua nahita zabar deskribatzearen atzean irakurleak pentsa dezake malditismoaren bidezko edertze bat dagoela,



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

gehiagizko zuritze bat bezain susmagarria. Nire ustez, autofikzioaren egia ustekizunak bere kontra egiten du.

* * *

Aurrekoan bururatu zitzaidan fikzioa eta egiaren arteko harreman berria ezartzeko bide kuantikoa izan zitekeela. Esperimentua egitea bururatu zitzaidan. Bi zerrenda osatuko nituzke: lehenean, inori aitortu ez dizkiodan gauza lotsa emangarriak, egia gordin tratatu gabeak, edertu gabeak. Beste zerrenda batean nireak ez diren (baina izan zitezkeen) bekatuak aletuko nituzke, pertsonaia bati egozgarriak, beraz, egin izan banitu aitortuko ez nituzkeen gauza halaber lotsa emangarriak. Bi zerrendak bata bestearn ondoan eman, irakurleari (kasu honetan, zuri) segurtatuz haietako baten ekintza guzti-guztiak egin ditudala eta bestearn bakar bat ere ez. Bakarra dela egiazkoa.

Horrek, esperimentua ongi ateratzen bada, bermatuko luke idazketa egia-eramaile bat, baina aldi berean fikzioari eremua ukatu gabe. Irakurleak ez du nitaz deus gehiago jakinen, ezinen nau zehatz epaitu, ez nire lekukotasuna zalantzan jarri, egiarekiko engaiamen-dua ere ez. Schrödingerren tankerako egiarekikoa.

* * *

Ama hil zen goizean bertan ospitale bereko erizain batekin kontaktatu nuen Grindren bidez. Ez zait Proust benetan gustatzen, ez diodan bezainbeste behintzat. Euskara ikasten hasi nintzen polizia nazionala izateko erabilgarria izanzen zitzaidalakoan. Artikulu honen muina plagiatu dut aldizkari honen irakurle batez besteak irakurriko ez duela uste dudana (beste hizkuntza bateko) blog batetik. Droga eskaintzen didatenean sartzekoarena egiten dut, baina putz egiten dut sudurreratzeko keinuarekin batera. Uste dut naizela euskaraz jardunean ari den euskal idazlerik onena. ■



Moda jasangarria

ETIKETAK MOZTU, ETIKAK JOSI



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Jantzi batek historia luzea du atzean. Haria eta oihala sortzetik, kolore, tamaina eta ehun desberdinen bitartez eta diseinu baten gidaritzapean josi eta saltzera. Sinplea dirudi, baina prozesu luze horrek faktore ugari barnebiltzen ditu: zein lehengai erabiltzen diren, nork egiten duen lana, nola pentsatzen duen diseinatzaileak, norentzat ekoizten den, nork eta nola erosten duen... Konturatu ala ez, ezaugarri horiek sis-

tema baten baitan eraikiak dira eta eragin zuzena dute gure gorputz eta bizitzaren baitan.

Munduan bizi garen pertsona guztiok dugu jantzeko beharra. Sistema kapitalistak, ordea, bere intereserako baliatu du modaren eta ehungintzaren industria, benetako beharra ongizatearekin nahastu edo ordezkatzuta. Erropa erostea ohitura edo denbora-pasa bihurtzeak eta armairuak gero eta beteago

Zer dio arropak hura jantzen duenaz? Zer ezkutazen du armairuan dugun kamiseta edota praka bakoitzak? Nork ekoiztu eta kontsumitzen ditu? Noiz erosten ditugu beharrak bultzatuta, eta zenbatetan kapritxoz? Hainbat solaskidek ehungintza eta modaren inguruan emandako azalpenek, jantzeko baino gehiago erantzeko balio digute.

izateak sistema bera elikatzen du eta balio hauek indarrean mantentzen ditu. Hala, ehungintzaren industria mundu mailako marka handiek gidatzen dute eta, zenbaitetan, lan esplotazioa, produktu toxikoen erabilera, osasun arazoak, gustuen manipulazioa eta publizitate sexista elikatzen dira, besteak beste. Hala ere, badira moda eta ehungintzaren sektore erraldoian bidexka berriak irekitzen ari direnak.



IKER IGLESIAS



Modaren aurkako moda

Estetikatik harago modak zerbait gehiago kontatzen duela uste du Katalin Antxia Abasolo diseinatzaile aretxabale-tarrak. The Modubat izeneko arropa marka sortu du, bere “ideologiaren ispilu” dena. Izenak dioen bezala, modari begiratzeko modu bat islatzen du, beste modu bat: “Moda industriaren atzean zer dagoen ikusten hasi gara pixkanaka eta ez dugu parte izan nahi; ez ingurugiroari egiten dion kalteagatik, ezta gizakiari ematen dion tratu erasokorragatik ere”. Horren aurrean, kontsumitzeko, jantzeko eta lan egiteko beste bide bat hautatu du: “Kontzientzia, koherentzia, asmo eta ideologiez batutako emaitza”.

Komunikazioan trebatu zen diseinuan hasi baino lehen eta gaur egun arropa bera du komunikatzeko tresna: “Komunikazio euskarri bat da moda, politika egin eta erakusten duelako”. Dendetan aurkitu ezin duena sortzen duela azaldu digu, antiestetikan, errespetuan eta ongizatean oinarrituriko moda egiten duela: “Arauk haustea gustatzen zait eta nireak sortzea”.

Antxiaren lan egiteko modua bat dator *slow fashion* (moda lasaia) filosofiarekin. Denborari garrantzia eman eta prozesuaz gozatzean datza. Egun indarrean dagoen ereduak “moda azkarra” egiten du, bi astetan ehunka ekoizpen sortu eta tendentziak etengabe berritzen dira: “Tendentziek bi egunetan egiten dute ihes. Lan egiteko modu horrek, gainera, kalitate txarreko arropak ekoiztea dakar eta hori lortzeko produktu

toxikoak erabiltzea”, dio Antxiak. Erritmo bizi eta estresaren aurrean, prozesu bakoitzari behar duen tarte ematea baloratzen du berak, “minimalista” bezala definitzen duen diseinuaz hausnartu eta irauteko produktuak sortzea.

Behar adina denbora lanean, eta ahalik eta gehien soinean. Horretarako jasangarria izan behar du jantziak eta hori da Antxiak jorratzen duen beste baloreetako bat, osasunarekin lotzen duena: “Material naturalekin egiten dut lan; gehien gustatzen zaizkidanak dirrelako, eta jasangarriak”. Erabiltzen dituen zuntz naturalak berriztagarriak diren iturrietatik datoz; “gizakia eta ingurugiroa errespetatzen duten prozesu eta materialak” baliatzen ditu.

Hau guztia aurrera ateratzeko zailtasunak ere badituela aitortu digu: “Abilezia behar da eta oso arlo ezberdinetan gainera: hizkuntzak, komunikaziorako gaitasun propio ez nekagarri bat, adi egoteko gaitasuna, azoketan, magazineta eta ekitaldietan parte hartzeko gogoia... ea hori guztia egiten dudana birtartean bezeroarekin nago kontaktuan, on-line denda ere nik eramaten baitut”.

Mundu zabalean, hamaika dira lehen-gai ekologikoak baliatzen dituzten proiektu jasangarriak: egoitza Bilbon duen Kameleonik markako espartinak, Xixqueta kataluniar markako artilezko jertseak, Xiroeco galiziar praka bakeroak, Ecoology etxeko arropa, kotoi organikoarekin egindako Mandacarú kamisetak, Rebelroot eta Peopletree produktuak, kamioien olanekin fabrika-

tutako Freitag poltsak, *The circular project shop* ekimena, gizarte-integrazioa helburu duen Teixedors kooperatiba... Interneten dituzten dendetan begiratu emanda, konturatu gara orotariko prezioak dituztela haien jantziek, pentsa daitekeenaren kontra posible dela gisa horretako produktuak patrika zulatu gabe kontsumitzea.

Kontzientzia eta koherentzia

Esan bezala, ideologia oso bat islatzen du Antxiak bere diseinuetan, ehungintzaren masa industriaren aurrean kontzientzia landu eta koherentziaz egin du bidea. Lan egiteko molde bere bizimoduan bertan txertatzera iritsi da: “Konturatzaren zarenarako bizitza estiloa aldatu duzu, kontuan hartzen baituzu, adibidez, tokian tokiko produktuak erostea, ahal den heinean, supermerkatuko ereduak baztertuz”. Zuzenean ekoizle eta bezeroekin lan egiten duela kontatu digu: “Bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden emakume talde bati eskua luzatu eta beraiekin elkarlanean aritzen gara. Kontsumo-kultura kontzientea bultzatzen dugu gure ekintzetan”.

Erosle potentzial gisa, hausnarketara gonbidatu gaitu disenatzaileak: “*Green Washing* kontzeptua ezagutu behar duzue. Jasangarritasunera modu errazean batzen diren markak salatzen ditu, garapen bidean dauden herrialdeetan masan ekoizten dutenak”. Erosten duguna zalantzan jartzeko ideia luzatu digu: “Jantzien konposizioari begiratu eta egin beti naturalekiko aukera. Monomateria-



» **KATALIN ANTIXIA, DISEINATZAILEA:**

“Kontsumitzaile gisa ere badugu ardurarik. Begiratu arropa non ekoiztua izan den, marka horrek zer balore dituen... Gure dirua nora bideratu nahi dugun pentsatu behar da”

» **IRATXE ARTEAGOITIA, ‘ARROPA GARBIA’ KANPAINAKO KIDEA:**

“Asiako langileak lau hilabetez egin beharko luke lan berak jositako kamiseta erosi ahal izateko”

lek, hau da, %100 material berdina du tenak, erraz birziklatu ahal izango dira bere bizitzaren bukaeran. Begiratu ere zein markak ekoiztu duen, non ekoiztua izan den edota zeintzuk diren lan baldintzak. Interneten begira dezakezu. Bide batez, *Fashion Revolution* mugimenduz informazioa jaso. Praka bakoitzaren inpaktu positiboa zein den ikusi, ingurigiroari, arlo sozialari eta ekonomiari

dagokionez. Pentsatu zure dirua zein proiektutara bideratu nahi duzun. Sarri kristoren diskurtsoak ditugu baina ari-keta hauek egitea falta zaigu”.

Bost euroko kamiseta bati buruz jakin behar duguna

Europar kontsumitzen den arroparen %70 inguru Asian ekoizten da. Beste zertxobait Afrikako iparraldean eta Europako mendebaldean, ekonomikoki pobreen diren herrialdeetan hain justu. Ez dago argi jostunek zehazki non egingen duten lan, erabat deslokalizatuta baitaude. Industriaren sektoreko soldatarik baxuenak ehungintzakoak dira, 29 euroko praka batzuegatik 0,18 euro jasotzen dute langile batzuek. Aitortza gutxiko lana da eta langileen %80 emakume gazteak dira.

1990eko hamarkadan arroparen ekoizpena herrialde txiroetara eraman zen. Leku horietan soldadak merkeagoak dira, eta arropa markentzat irabaziak handiagoak. Legedia ere lausoagoa da, langileen eskubideak jasotzen dituzten araudirik ez baitute batzuek; ez dago sindikaturik eta langileek protestara jotzen badute zigorrak jasotzen dituzte. Bangladeshen manifestazio eta greba asko egin ziren iaz, soldatek duintasunez bizitzeko aukerarik ematen ez zutelako, eta langile asko kartzelaratuak izan ziren. Hori guztia ikusezina da, eta eroso fabrikatzaileentzat. Hala salatu dute Arropa Garbia kanpainako kideek.

Europako 15 herrialdetan dabilta lanean. Arropa ekoizten duten langileen

Ezkerretik eskuinera: Katalin Antxia diseinatzaile aretxabaletarra, berak egindako berokia soinean. The Modubat arropa marka sortu du, bere ideologiaren ispilu dena. “Moda-industriaren atzean zer dagoen ikusten hasi gara pixkanaka, eta ez dugu sarraski horren parte izan nahi”, kontatu digu.

Koldo Jauregi eta Pili Otaegi larrauldarrek lihoaren prozesu osoa ikertu eta erakutsi dute, hazi izatetik alkandora bihurtzeraino.

Sandra Cliville artisauek urteak daramatza artilezko oihalak ehuntzen Ataungo Ustatxo Goikoa baserrian.

eskubideak hobetzea dute helburu eta horretarako ikerketak, salaketak, gobernu eta markei presioak edota kontzientzia kanpainak bultzatzen dituzte. Orain gardentasuna eskatzen ari zaizkie markei eta gobernuei, produktuen jatorria azaleratu dezaten. “Askotan ezkutuan daude langileak eta zerbait gertatzen denean ez dago erantzulerik”, adierazi digu Iratxe Arteagoitia kanpainako kideak. Bangladeshen duela lau urte gertatutakoa jarri du adibide gisa. Eraikina erori eta 1.150 pertsona hil zirenekoa. “Nor izan zen erantzulea? Inor ez”, dio. Fabrika eta enpresa horiek lokalizatuta egonez gero, marka bera izango litza-ke erantzulea judizialki eta politikoki. “Presio komunikatibo handia izan zuen gertakizunak eta horri esker lortu genuen 200 markek akordio bat sinatzea suteen eta bestelako istripuen aurka. Horregatik da garrantzitsua helaraztea denek egin dezakegula zerbait”.

Lehenik, gardentasuna

The North Face, Desigual, Mango, Adolfo Dominguez, El Corte Ingles, H&M, Inditex, Adidas eta Nike dira, besteak beste, Arropa Garbia ekimenak begiz jotako markak: “Askotan langileak berak ez daki norentzat ari den lanean, ez baitira haiek etiketak jartzen dituztenak”. Batzuetan, gainera, etiketa non jarri den aipatzen dute soilik, ez non josi den, nondik datorren kotoia, nondik datorren oihala, non moztu den...”.

Zergatik mantentzen da ordea ezkutuan? “Lan baldintzak oso kaskarrak

direlako”, dio Arteagoitiak. “Fabriketan eta euren etxeetan egiten dute lan lan-gileek eta etxeetan normalean familia guztiak parte hartzen du. Ez dago inolako kontrolrik”. Langile gehienak emakume gazteak dira; kiroleko arropak eta baloiak egiteko material eta prozesuagatik, adibidez, esku txikiak behar dira, emakume eta haurrenak. “Historikoki, gainera, jostuntza etxeko lanbide gisa irudikatu da eta emakumeak izan dira etxean egon izan direnak. Halaber, emakumezkoen soldatak gizonezkoenak baino baxuagoak izan dira beti”. Bere hitzetan, herrialde horietan ez dute beste lan baterako aukera handirik eta fabrikatzaileek hori baliatzen dute. “Kanbodian, adibidez, edo ez duzu lanik, edo jostuna zara, edo prostituzioan egiten duzu lan”. Sektore honetan ere sexu-erasoak ematen direla salatu du: “Emakumeak kontrolpean izateko tresna eraginkorra dute”.

Horrez gain, kobratu gabeko aparteko orduak egiten dituzte, ehunka praka josi behar dituztelako astebeteren bueltan: “Eta gero prezioak ikusten dituztenean harrituta geratzen dira; lau hilabetez lan egin beharko lukete kamiseta hori bera erosteko”.

Osasunaren eta ingurugiroaren kaltetan

Lan egiteko modua eta erabiltzen diren produktuak osasuna eta ingurugiroa kaltetzen dituztela esan digu Arteagoitiak. Bakeroak desgastatzeko teknikaz hitz egin digu: Hondar txorrotadak botatzen dira ehun bakeroaren gainera desgastatu itxura emateko, eta horrek silikosia deitutako arnas gaixotasuna eragin dezake, mehatzariak maiz pairatzen dutena. Hildakoak ere izan dira bakeroak desgastatzen ibili direnen artean. Oihalak moztea ere ez da osasungarria. Hautsa askatzen du eta hura arnastuta biriketara heltzen da. Gainera, ez daukate babes-neurririk, maskarak esaterako.

“Kolore gorria modan dagoenean herrialde horietako errekek gorri bihurtzen dira”, kexu da Arteagoitia, baliatzen diren tindagai eta produktu toxikoengatik. Greenpeace erakunde ekologistak pasa den urtarilean salatu zuen hainbat marken mendiko arropetan produktu toxikoak aurkitu zituela. “Produktu toxiko batek ingurugiroari kalte egiten dio eta guk janzten dugun



“Arropa Garbia” bezalako kanpainak, Zara eta gainerako multinazional handien jantziak non eta zein baldintzatan ekoizten diren ohartarazi eta neurriak hartzea dute helburu. “Haien etiketek maiz ez dute egia osoa esaten; etiketa non jarri den aipatzen da, baina ez non josi den edota kotoia nongoa den”, esan digu Iratxe Arteagoitia kanpainako kideak.

ARGAZKIA: DANI BLANCO

ARDURAZ KONTSUMITZEKO AHOLKUAK

1. Galdegin: benetan behar dut erosiko dudana?
2. Irabaziak norentzat diren pentsatu.
3. Kalitatea eta iraupena ziurtatu.
4. Osagaiak begiratu, materiala aztertu.
5. Lehengaiak murrizteko bestelako irtenbideak bilatu: trukea, bigarren eskukoa...
6. Gehiegikeriari uko egin, informazioa eskatu eta koherente izan.
7. Erabilera amaitzen denean, birziklatu.
8. Zure arropa zaindu.

arropan dago. Orduan zer?”, galdera aurrean laga du Arropa Garbia mugimenduko kideak.

Kontsumitzaileen ardura

Gisa horretako arropak fabrikatzen badira, erosi egiten direlako da. Hortaz, kontsumitzaileen kontzientzietan eragitea ezinbestekotzat jo du Arteagoitiak: “Batetik, zer erosten dugun jakiteko eta bestetik, guztion artean nolabaiteko presioa egiteko. Haien patrikari eragiten diorean hasiko dira aldatzen”. Inditex multinazionalaren sortzaile Amancio Ortega munduko bost pertsona aberatsenetakoa dela gogorarazi digu, eta haren produktuak herrialde txiroetan ekoiztu eta aberatsetan saltzen direla. “Eta gu geu herrialde aberatsetan bizi gara”.

Kontsumo katearen parte garen heinean, informazioa bildu eta mobilizatu egin behar gara dio. Ehungintzaren egitura aldatzea beharrezkoa dela uste du, arauak aldatuz gero osasuna, segurtasuna, negozio kolektiboa eta bizitza bera kontuan hartuko direlakoan. “Galdera ez da soilik zer eta non erosi, aukera desberdinak baliatzea baizik: arropa konpondu, bigarren eskukoa hartu, norbaitekin trukatu...”. Saltoki txikien aldeko hautua egitea proposatu digu: “Gehienetan saltzailea bera da ekoizlea eta kontzientzia dute”.



Artilea balioestea xede

Kontsumo katearen funtsezko osagaia lehengaia da, jantziak egiteko baliatuko den materiala. Zentzu horretan, artileaz hitz egitea dagokigu, gaur egun balio gutxi duen lehengaiak, maiz artzainek bota edo oso prezio baxuetan saltzen dutena. Badira, ordea, haren erabilera eta kontsumoa biziberritzea helburu duten egitasmoak. Sarako Iletegia proiektua esaterako. Artilea baliatuta koltxoak, burkoak, kuxinak eta edredoiak egiten hasi ziren 2014an Aitor Zubillaga, Aña Andiazabal eta Joana Urbistondo. Ardi arraza bakoitzaren artilearen ezaugarriak ikusita, manexa eta ardi latxaren artilea erabiltzen dute Iletegian. "Laborari izanki badakigu ilea arrunt guti pagatua dela, 8 eta 12 zentimo artean kiloa, galtze bat dela laborarientzat", zioen Urbistondok *Laborari* aldizkariak iazko maiatzean egindako elkarrizketan: "Erran nahi duela mozketak gehiago gastu duela eta ardi ileak ez duela hori pagatzen. Behar dira zakuetan ezarri, urrun ekartzeko, eta urte bat berantago pagatua izaiteko. Batzuk erretze artio ailegatuak dira. Arazo handi bat bada horren inguruan eta etorkizunean ez dakigu nola pasatuko den. Kolektiboki pentsatu behar dugu zer egiten ahal den edo nola behar den pentsatu artileak balio bat izateko".

Beste adibide bat Sandra Cliville artisaurena dugu. Urteak daramatza Ataun-

go Ustatxo Goikoa baserrian artilezko oihalak ehuntzen eta tinte naturalak ekoizten. Artzaintza ikasi zuen Clivillek, Arantzazuko Artzain Eskolan. Etxean badute artaldea, eta handik ateratako artilea lantzen du. Prozesu osoa garatzen du, natural lehortzen hasi eta ehundegian oihalak prestatzera. Petroliotik eratorritako zuntz sintetikoaren aurrean, "material naturalen aldeko aldarria" egiten du, Aimar Maiz kazetariak *Goierriko Hitzan* plazaratutako artikuluan nabarmendu bezala.

Lihoa lanbide zenekoa

"Ehunak ehun lan", dio esaera zahar batek. Antzina, lihoak eta lihogintzak garrantzia handia zuen Euskal Herrian. XX. mendera arte, oihalak eta jantziak egiteko lehengaia izan zen, artilearekin batera. Pili Otaegi eta Koldo Jauregi larrauldarrek bertan lihoa lantzen zela ikertu eta frogatu dute, baita urtebetez lanbidea berreskuratu, prozesua ezagutu eta ezagutzera eman ere.

Garai batean, liho landarea landu eta oihala sortzea lanbide bat zen, orokorrean emakumeek egiten zutena. "Askatasuna eta independentzia ematen zion lanbide honek emakumeari. Alargunentzat edo ezkongabeentzat bizibidea zen eta bere buruaren jabe izateko bidea zen lihoa, baita autoestimurako ere", dio Otaegik. Neskatoek 12 urte betetzen zituztenean gurasoek landa zati bat prestatzen zieten kontatu digute, hura lantzen hasi zitezen. Lihoari buruzko testigantza ugari jaso direla gaineratu du, baina emakumeen esku egon izanagatik, jardura ezezaguna izan dela oro har.

Jauregik kuriositatez galdetu zion aitari ea Katillutxulo iturriaren inguruko putzua zer zen. Aitak liho-putzuak zirela erantzun zion. 1976. urtearen bueltan izan zen hura, baina duela urtebete arte ez zen buruan zuen ideari forma ematen hasi. Senak gidatuta, herritarrei galdezka hasi zen berriro ere, eta haiek kontatutakoei tiraka liho putzua berreskuratze bidean hasi zen, Dina7 Kultur Elkartearen eskutik.

Naturak bere egina zuen putzua, sasiz eta harriz inguratuta. Hura garbitu, berriro eta urez bete zuten 2016an. Birtartean, liho-soraa ere sortu zuten. Datu guztiak liburu batean bildu dituzte eta bideo bat ere ateratzeko asmoa daukate. Iaz erakusketa paratu zuten herrian, lihoaren garapen guztia azaltzen zuena, hazi izatetik alkandora bihurtzeraino. ■

VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



Dibertikale

Kale ikuskizunen zikloa

• ZOOZOOM

Uztailak 6, 19:30
Ibaiondoko GEko plaza

• BOLA BAI

Uztailak 7, 19:30
Galizia kaleko plaza (Arana)

• LAU DENBOREN ARTEAN

Uztailak 13, 19:30
Hegoalde GEko plaza

• BALDIN BADA

Uztailak 17, 19:30
Valentin Foronda zidorra (Lakua)

Oihaneder euskararen etxea

• KORTXEAK & KRISPETAK

Musika eta zinema zikloa
Filmak jatorrizko bertsioan euskarazko azpitituluekin
Falerina lorategian

• EAT THAT QUESTION:

FRANK ZAPPA IN HIS OWN WORDS

Filma
Uztailak 26, 22:00

• JANIS: LITTLE GIRL BLUE

Filma
Uztailak 27, 22:00

• SAD VACATION

Filma
Uztailak 28, 22:00

• MONTAUK + LOU TOPET

Kontzertua
Uztailak 29, 22:00

• GASTEIZTARRAK ARRAUN THE WORLD

2017 udako argazki-hizki lehiaketa
Ekainaren 21etik irailaren 21era
Info+: www.oihaneder.eus

Jai Atarikoak

Aihotz plazan
Abuztuak 2, 19:00

• AIHOTZ TXOTX SAGARDOTEGI ERRALDOIA

Sagardoa eta pintxoak
Ordago Folk & dantza plaza
Abuztuak 3, 20:00

• The Icer Company

• DJ Loro

Kontzertua

**Maite duzun
hura, euskaraz!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Laura Wollny, ekintzaile alemaniarra

“Mundua klima aldaketatik salbatu nahi badugu, kapitalismoari amaiera eman behar diogu”

Alemaniano ikatz-meategi erraldoien jarduna eteten duten ekintza desobediente masiboak antolatzen ditu Ende Gelände, talde ekologistek, ezkertiarrek eta gobernuz kanpoko erakundeek osatutako elkarteak. Elkarte horren ekintzak hartu ditu eredutzat Gipuzkoa Zutikek maiatzaren 27an egin zuen protestarako, eta bertan izan zen protesta desobedientean parte hartzen Laura Wollny, Ende Gelände eta AugeCO2ht taldeetako militantea.



Lukas Barandiaran San Roman
@barandiluk

Zer esan nahi du Ende Gelände?

Nahikoa da! esan nahi du, ez dugu-
la ikatz gehiago erauztea nahi. Esaldi
alemaniarra da, eta ezin da itzuli hitzez
hitz.

Nola sortu zen?

2010eko udan klimaren kanpamentuak
antolatzen eta meatzaritza azpiegiturak
blokeatzeko ekintzak egiten hasi ginen
Renanian. Geroz eta pertsona gehiago
gerturatzeko hasi zen, esperientzia asko
bildu genuen, eta jauzi bat ematea era-
baki genuen: inguruan genituen lagun
eta talde politikoei galdezka hasi ginen
ea ekintza talde bat osatzeko prest zeu-
den, eta horren emaitza Ende Gelände
izan zen.

Zein da zuen jarduera nagusia?

Desobedientzia zibileko ekintza masi-
boak egiten ditugu. Ondo prestatutako
taldeak osatu eta meategietara eta mea-
tegiak zentral termikoekin lotzen dituz-
ten trenbideetara joaten gara. Gure gor-
putzekin blokeatzen ditugu. Han eseri,
eta polizia etorri edo gu nekatu arte ge-
ratzen gara.

Zuen diskurtsoetan kapitalismo fosilari egiten diozue aipamena. Zertan datza?

Ez gaude lignitoaren —harrikatz mota
bat— erauzketaren kontra bakarrik,
baizik eta modu orokorragoan kapita-

lismoaren kontra gaude. Kapitalismoak
erregai fosilen errekuntza du oinarrian,
ikatzaren errekuntzarekin hasi zen
Erresuma Batuan. Beraz, fosilen kon-
bustioarekin amaitu eta klima salba-
tu nahi badugu kapitalismoari amaiera
eman behar diogu.

Ez duzue uste kapitalismo berriztagarria posible denik?

Horixe da gakoa; ez dugu uste kapitalis-
mo fosilaz harago kapitalismo berrizta-
garria egon daitekeenik. Kapitalismoa
beti izango da fosila, biak batera doaz.

Beraz, zuek kapitalismoarekin amaitzeko bere oinarrietako batekin amaitu nahi duzue, fosilen konbustioarekin.

Abiapuntu batetik hasi beharra dago: gu
lignitoaren kontra hasi ginen, oso kalte-
garria baita klimarentzat. Gainera, gure
ekintzak jendea desobediente izatera
bultzatzen du; jende askok parte hartu
dezakeen ekintzak dira, deialdi publi-
koak dira, ongi azaltzen ditugu ekintzen
nondik norakoak, ez gara talde klandes-
tino bat. Baina aldi berean, ezohiko ekin-
tzak dira, ez baititugu egunero poliziak
babesten dituen guneak blokeatzen. Po-
sizio aktibo bat hartzera bultzatzen di-
tugu parte-hartzaileak, eta pentsatzen
dugu jendea beste alderdi batzuetan ere
desobediente izatera bultzatzen duela
horrek. Beti saiatzen gara lignitoaren

kontrako borroka bestelako borrokekin
lotzen: errefuxiatuen aldeko borroka
edo klima aldaketaren beste alderdiekin,
munduaren hegoaldeko herrialdeek su-
fritzen duten egoera, esaterako.

Justizia klimatikoa kontzeptua darabil- zue. Zer esan nahi duzue horrekin?

Munduaren iparraldean planetako
CO₂aren zati handiena isurtzen ari gara,
eta gainera jardura horretan ekoitzi-
tako produktuez gozatzen dugu. Gure
bizimodua da klima aldaketaren iturria,
baina eragina sufritzen dutenak mun-
duaren hegoaldekoak dira. Han daude
klima aldaketa pairatzen ari diren ere-
muak, esaterako itsasoaren maila igo-
tzearekin desagertuko diren uharteak
edo haziz doazen basamortuen ingu-
ruan dauden bizitokiak. Gainera, hango
estatu eta gobernuak ahulagoak dira
egoera horren aurrean erantzun sendo
bat eman ahal izateko. Gu zerbait egiten
hasi behar gara, ezin diogu eskatu India-
ko inori ez dadila kotxean ibili.

Beraz klima justizia sozialarekin lotzen duzue?

Horixe da, ez da ingurumenaren edo
hartz zurien kontua soilik. Ez dugu ho-
rretara mugatu nahi, gizateria osoa sal-
batu nahi dugu, batez ere klima aldaketa
sortzearekin zerikusi gutxi duten per-
tsonak.



Metodo gisa desobedientzia zibila erabiltzen duzuela esan duzu, nolakoa da desobedientzia hori?

Ekintza bat egin aurretik horren berri ematen dugu, asanbladak deitu ohi ditugu egingo duguna, edo egingo dugun ia guztia azaltzeko, polizia ere adi egon ohi baita. Hainbat jarraibide ematen ditugu: gure gorputzekin egingo ditugu blokeoak, ez dugu ezer suntsituko, ez diogu poliziari eraso egingo haiek ez direlako gure helburu, gure helburuak trenbideak eta makineria dira. Prentsa ere deitzen dugu, jendeak jakin dezan zer egiten dugun.

Zergatik jotzen duzue desobedientzia zibilera?

Alemanian tradizio handia du desobedientzia zibilak, batez ere nuklearren aurkako mugimenduan. Guk egiten ditugun antzeko ekintzak egin ohi zituzten. Eta noski, ekintza horiek legez kanpokoak dira.

Ez al duzue beste biderik ikusten?

Gu bezalako ekintzaile gazteak iritsi aurretik, han bizi zirenak ari ziren borrokan meatzaritza proiektuen kontra, baina beren herriak suntsitu zituzten. Politikariekin eta meatzaritza konpainiekin hitz egiten saiatu ziren, epaitegietara jo zuten, baina ez zuen emaitzarik izan. Ikatzka atera nahi dutenei bost



Basoan barrena hiru zutabetan ateratako martxa desobedienteak lortu zuen helburua: makina erraldoira heldu eta geraraztea.

axola zaie eremu horietan edo mundu mailan gertatzen dena. Egoera horretan jo genuen desobedientzia zibilera.

Zuen desobedientziak legalitaterik ez, baina zilegitasuna duela diozue. Nondik datorkio zilegitasun hori?

Alemanian justizia klimatikoaren alde egiteak esan nahi du berehala amaitu behar dugula herrialdeko erregai fosilen erauzketarekin, gu geu kaltetzen ari garelako. Eta ez dago beste biderik hori egiteko, horregatik dauka zilegitasuna. Gure eginbeharra da.

Zein ondorio ekarri dizkizue legearen kontra egiteak?

Alemanian bide publikoak blokeatzea isunekin zigortzen dute. Baina meatzaritza egiten duten lur-eremu ia guztiak konpainien jabetzakoak dira, eta gure kontrako auzia hasi dute epaitegietan. Orain arte ez dugu arazorik eduki, epaiketak irabazi ditugu edo isun jasangarriak ezarri dizkigute. Arazoa da hasi direla gure blokeoak eragindako ekoizpen eteteen galera ekonomikoak egozten eta diru asko eskatzen.

Parisko klima akordioa gauzatzen haste-ko bilera egingo dute udazkenean Bonnen, eta zuek ekintza bat egiteko asmoa duzue han. Zergatik?

Nazio Batuen Erakundearen klimaren goi-bilera egingo dute, eta mundu oso

estatuen ordezkariak ibiliko dira han. Halakoetan gertatu ohi den antzera, klima aldaketaren kontra zer egin eztabaidatuko dute, baina ondoren ez dute neurri eraginkorrik hartuko. Aurten Fiji uharteek antolatu dute goi-bilera, eta Alemanian egingo dute; hau da, klima aldaketaren erantzule nagusietako batean antolatuko du goi-bilera klima aldaketaren bultzatzearekin zerikusi gutxi duen herrialde batek, baina aldi berean itsasoaren maila igotzeagatik urpean geratzeko arriskuan dagoenak. Horrez gain, Bonn meatzeetatik gertu dagoen hiria da. Salatuko dugu Alemaniak ez duela horrenbeste egiten klima aldaketaren kontra, eta ez duela horrenbeste energia berriztagarri erabiltzen, askotan errepikatu arren lelo hori.

Getxon, Gasteizen eta Zubietan izan zara [ondoren Iruñera joan zen], zer deritzozu hemen ikusi duzun mugimenduari?

Asko gustatu eta interesgarriak iruditu zaizkit mugimendu txikiak aurkitu ditudalako, baina oso ondo errotoak herri eta bizilagunen artean. Horrek ez du oso ondo funtzionatzen Alemanian, lantzeke dugun puntua da. ■

► lazko ekintzaren bideoa ikusteko eskaneatu ondorengo QR kode hau.



“ARRISKUA BETI DAGO, BAINA EZIN GARA EZKUTATU GERTA LITEKEENAREN BELDUR”

Usurbilgo geltokian Mozal Legearen aurkako protesta batean parte hartzen ari zela tren batek oso zauri larriak eragin zizkion Martin Goitiandia Roquero 20 urteko donostiarrari. Gertatutakoak bazterrak astindu zituen Donostialdean, eta handik gutxira Euskal Herriko txoko askotara heldu ziren elkartasun keinu eta protestak. Koman bi astez izan da eta hiru ospitalean. Orain, etxean, ari da orduan gertatutakoari tamaina hartzen.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Axier Lopez

@axierL

Zer moduz zaude?

Hainbat zauri daukat oraindik eta goize-ro errehabilitazioa egiten dut hezurrak berrosatzeko. Orain pazientzia eta denbora. Animoz, oso ondo nago.

Hiru aste baino gehiago izan naiz ospitalean. Horietako bi zainketa berezietan. Femurra hautsita, pelbisa hiru zatitan ukitua, bizkarreko orno batean fisura, saihets-hezur batek birika kalte-tua, buruan kolpe handia, erredurak eta zauriak izan nituen. Koma induzituan izan naiz 12 egunez. Orain ari naiz orduko gauza askoren berri izaten.

Ondorio legalik utzi al du?

Ni lo nengoela etorri ziren ertzainak ospitalera. Gurasoekin izan ziren. Nire neurriak eskatu zituzten istripuaren inguruko azterketa egiteko. Usurbilgo geltokian izan ziren beste pertsona batzuei ere galderak egin dizkie, baina niri ez. Espediente bat ireki dute eta hor sartu dute istripua izan ostean anbulantziaren zain nirekin geratu zen pertsona. Bera adin txikikoa da, eta hasieran lekuko moduan joateko deitu bazuten ere, azkenean inputatu gisa sartu dute kalte materialengatik. Zorionez, ez da akusazio larria. Halere, oraindik ikerketa hastapenetan dagoenez, egoe-ra alda liteke.

Euskotrenek barne mailako ikerketa egin duela dirudi, baina salaketarik ez. Guk ere ez dugu salaketarik jarriko.

Zer gertatu zen apirilaren 13an?

Ideia zen Mozal Legearen aurkako pintaketa egitea tren batean Usurbilgo geltokian. Horretarako trenak gelditu egon behar zuen, eta lan hori nik hartu nuen. Trena Lasartetik zetorren eta Usurbilgo geltokian geratu zenean bidaiariak igo eta jaisteko, ni jarri nintzen trenaren aurrean kartel batekin, une batez mugi ez zedin. Nahiko azkar egin behar zen dena.

Badirudi gidariak pentsatu zuela grafitigile batzuk zirela eta bidaiariak jais-ten eta igotzen amaitzean, martxan jarri zuen trena. Trena niregana zetorrela ikustean, geldituko zela pentsatu nuen. Nik ez nuen gidaria ikusten, baina nik uste nuen berak ni baietz, ikusten ninduela. Beraz, hasieran abisu baten modukoa izango zela pentsatu nuen. Baina ez zela geldituko jabetzeaz, korrika hasi nintzen bere aurretik. Hasieran motel doa, baina segituan abiadura hartu zuen eta ni harrapatuta geratu nintzen nasako horma eta trenaren artean. Ez ninduen azpian harrapatu, baina kolpe handiak hartu nituen.

Hortik aurrera ez dakit oso ondo zer gertatu zen. Larrialdietara heldu arte

kontziente nengoela eta han zeudene-kin hitz egin nuela esan didate. Kide ba-tek lagundu ninduen trenbidetik ateraz-ten. Trenak jarraitu zuen Zumaiaraino ezer gertatu ez balitz bezala eta orduan han jakinarazi omen zioten gidariari Usurbilen jazotakoa.

Euskotrenek adierazi du gidariak ez due-la ezer ikusten kabinatik lau bat metroko tartera arte eta horregatik ez zintuela ikusi.

Nik leihoa ikusten nuen, baina oroitzape-na daukat ez nuela inor ikusten gida-riaren kabinan. Makinariak ez ninduela ikusi esan du eta hala izango da, ez dut inolako arrazoirik ikusten kontrakoa pentsatzeko. Istripua izan zen.

Zurekin harremanik izan al dute?

Saiakeraren bat izan da, baina oraingo-z ez dut aukerarik izan gidariarekin ego-teko. Jakinarazi didatenez, berak oso gaizki pasa du. Aukera dagoenean, ez duela errurik esan nahi diogu. Guk ba-nekien ekimenean arriskurik bazela, eta gure erantzukizunpean ginela han.

Zergatik egin zenuten?

Uztailaren 1ean bi urte izango dira Mo-zal Legea indarrean jarri zutela, eta guk legearen aurkako jarrera azpimarratu



nahi genuen. EAjri begira planteatu genuen ekimena, Legebiltzarrak legea ez aplikatzeko konpromisoa hartu bazuen ere, Ertzaintza egunero aplikatzen ari delako.

Istripuak hauspotuta, efektu biderkatzailerak lortu zuen ekimenak hurrengo egunetan.

Egia esan, asko flipatu dut emandako erantzunarekin. Izugarria izan da. Indar handia ematen du. Era askotako talde

eta ekintzaileek batera erantzun zuten. Asko pozten naiz.

Ekimen horietan elkartasuna adierazi eta Mozal Legea salatzeaz gain, jarrera desobedienteaz azpimarratu zen maskara gorri eta berde baten bitartez.

Bai, hori ere bazen gure ekimenaren helburuetako bat, jarrera desobedienteak bultzatzea. Gure ekarpentxoak zen maskara hori desobedientziaren ikur eta tresna gisa plazaratzeko. Aurretik

eta ondoren beste ekimen batzuetan egin duten bezalaxe, adibidez zenbait "kontzertu klandestinotan", Iberdrolako dorre barruan egindakoa kasu.

Sistema politiko eta ekonomiko honen ankerkeriaren aurka egin nahi duen ororentzat erabilgarri dago ikurra. Ekimen desobediente ez-biolentoak izanez gero, guztiz libre da. Ez dago proiektu politikorik atzean, herri mugimendu osoarentzako tresna da.

Gehiengo soziala, politikoa eta instituzionala dago Mozal Legearen kontra. Zer gehiago behar da legea indargabetzeko?

Gurean diote Madriletik datorrela agindua eta bete behar dutela. Ohiko trikimailua da. Beste hainbat legerekin tranpa bera egiten dute Jaurlaritzatik. Mozal Legea errepresioaren logikaren barruan ulertu behar da. Azken urteetan hedatu den erantzun sozialari aurre egiteko produktua da. Begi bistakoa da errepresioa hedatzen ari dela gizarteko eremu askotara. Gaur bertan epaitu dituzte Gazteak Kalean ekimeneko lagunak, Errekaleorren kasua hor da... Mozal Legea errepresio mota hori errazteko tresna baino ez da. Horregatik, besteak beste, legeak ematen dio botere handiagoa Poliziari eta zigorrak bide administratibotik bideratzen ditu, isun ekonomikoak handitu eta mugimendu sozialak azkarrago itotzeko. Beldurra eta autozentsura hedatu nahi dituzte, guk geuk euren lana egin dezagun: mugi ez gaitezen.

Zure kasuaren larritasunak beste ekintzaile batzuei beldurra eragin ahal izan die, eta protesta ekimenetan parte hartzeko zalantzak piztu. Zer esango zenieke?

Niri ere eragiten dit beldurra zer pasa dudan gogoratzeak, oso gaizki bukatzeko zer gertu egon naizen. Egiari zor, arriskua beti dago. Baina ezin gara ezkutatu gerta litekeenaren beldur. Konpromisoak askotarikoak izan daitezke. Gure kasuan, han ginen bakoitzak erabaki zuen zer egin nahi zuen.

Batetik, gauzak ondo prestatu behar dira. Zenbat eta hobeto prestatu orduan eta txikiagoa izango da arriskua. Bestetik, ez da inoiz behar baino arrisku handiagoa hartu behar helburua lortzeko. Norberak neurtu behar duen kontua da. Baina jakitun izan behar dugu, gure burua mugatu eta isiltzen garen bakoitzean, beren lana geuk egiten dugula. ■

Zintzarriak eta joareak

ZARATA ALA MUSIKA?

“Hau duk miseria!” esan du Joxe Luix Beasainek. Eskuak urritz-makilan jarrita dituela, begirada galdua balu bezala, inguruko bailaretara zuzentzen ditu begiak. “Hau duk tristura hau...” esan du jarraian. Joxe Luix bezala, parean ditugun bailaretara begira geratu gara gu ere, bere begiek ikusi dutena sumatu nahian edo. Alferrik gabiltza, ordea. Joxe Luixek ez du ezer ikusi. Isiltasuna entzun du. Ardirik eta zintzarriak gabeko mendiaren isiltasuna.



Iñaki Sanz-Azkue

“Hemen ardiak? Denean! Ba al dakik zenbat ardi ibiltzen zen?” esan digu. “Etortzen hituen mendira martxo-a-pirila aldera eta abuztuan ematen genizkian bibelarrera, baserrira, ahariarekin biltzeko” jarraitu du. Joxe Luix Beasain “Barberua” ardi artean jaio zen eta ardi giroan igaro ditu bere bizitzako momentu gehienak. Aitona artzaina, aita artzaina eta bera ere artzain ibilia baita Hernaniko Ereñotzu auzoan, Urumeako bailaran. “Sasi-ardiak eduki nizkian. Baita behiak ere: betizuak!”

Gure elkarrizketa, ordea, sasi-ardi eta betizuen bidetik atera gabe hizketaldi luze eta ezezagunean sartu da. Nork pentsatuko zuen gaur soinu, zarata eta musikaz hizketan jardungo ginenik. Nork pentsatu gaur zintzarriak izango zirela gure elkarrizketaren erritmoa markatuko zutenak.

“Boza” duten zintzarriak eta zintzarri “motelak”

Beasainek mimoz eta maitasun handiz gordetzen ditu urteetan zehar bere ardiek eta behiek erabilitako zintzarriak. Eta oso ondo daki zein zintzarri duen soinu polita, zein zintzarri pataila: “Honek soinu itsusia dik, hau moteldua zago” esan digu zintzarri txiki bat astinduaz. Zintzarria bezala, gure belarriak ere “motelduak” egon, eta ez dute soinua

horren itsusi hartu. Gure aurpegia ikusita, Beasainek dena ulertu du: “Egon, egon. Ikus ezak hau, ikusi. Honek soinua kategorikoa dik” esan digu beste zintzarri bat hartzen duen bitartean. Eskuan hartu, eta alde batetik bestera astindu du. “Aditzen al duk? Honek tiiiinnn berezi bat dik, zintzarri honek beste boza bat dik”.

Soinu bat, ardi bat

Beasainek 95 ardi izan zituen eta hauen herenak, 30 inguruk, zuten zintzarria. Zein ardiri jarri erabakia “formaren arabera edo ardiaren izateko eraren arabera” hartzen zuen. “Artzain bakoitzaren burutazioak izaten hituen: ardi honek muturra kurbatua zuela, hau txikiagoa zela...” artzainak berak erabakitzen zuen nori jarri. Ardi bakoitza ezagutzen zuen moduan, ardi bakoitzak bere izena zuen bezala, jakiten zuen zintzarri bakoitzaren soinua zein ardiri zegokion. “Ikusi nahiz ez ikusi, zakar artean edo garoan ibiltzen hituen sasi-ardiak eta zintzarri soinuarekin jakiten genian ‘holako ardi han zegok’”.

Artzainaren belarri finek ondo asko ezberdintzen baitute bere artaldeko zintzarri bakoitza. “Eta oraindik ere ezagutuko nitian”. Bere ardiekin batera, bailara berean ibiltzen ziren beste artzainen zintzarriak ere ezagutuko lituzkeen galdetuta barrez erantzun digu: “Berei-

ziko ez nitian ba! Aditza nahikoa izaten nian!”. Gogoan du Beasainek oraindik ere Oartzun inguruan mendian zintzarria aurkitu zueneko. Aitajauna oartzuarra zuen eta hari erakutsi zion. Aitajaunak zintzarria astindu, soinua entzun eta ez omen zuen dudarik egin: “Hau halako baserrikoa duk”. Begira geratu gatzazkio Beasaini. Ulertu du barruan dugun galdera: “Eta zintzarria beste artzain bati lapurtuz gero, kontuz, e? Hire ardiari jartzen badiok segituan ezagutuko dik!” esanez bukatu du kontakizuna.

Musika mendian

Kartola bailarako mendietan oteak, larrak, txilarrak eta iratzeak estaltzen zizuten basorik gabeko gune bakanak. Sasi-ardia bertan ibiltzen zen, garoan, landare artean, artzainaren begietatik ezkutatu nahian bezala. Urumea bailarako mendi hegal malkartsuek ez zioten artzainari bertan gora eta behera ibiltzeko aukera askorik ematen. Beasainek, ordea, ondo ikasia zuen bere lana. Gune garai batean zutik jarri, eta bailara begira geratzen zen, geldi, isiltasunean. “Han holako ardi dago, han halako betizua, han beste hura...” eta pixkanaka pixkanaka, zintzarrien soinuek esaten zioten non zebilen bakoitza. “Horrelaxeok hituen gure funtzioak!” esan digu.



Zintzarriaren soinuak belarri guztietara ez du uhin bera bidaltzen. Egungo hiritar askorentzat zarata iturri baino ez dena, Beasain bezalako artzain askorentzat zintzarri soinua berezia da: "Hori izaten huen gure musika!". Gure mendietan urtez urte itzaltzen joan den musika. ■

Joxe Luix Beasain "Barberua"
ardi artean.

ARGAZKIA: JON MARI BEASAIN

ZINTZARRI ETA JOARE MOTAK

1. **Bildots-joarea** edo **zintzarri-kalaxka txikia** edo **txakur txintzarria**: Bildotsarentzat.
2. **Ardi-joarea**, **laukantoikoa** edo **zintzarri-kalaxka**: Ardientzat.
3. **Ardi-joarea** (borobil formakoa): Ardientzat.
4. **Joare-larria** edo **zikiro-joarea**: Ardiari edo zikiroari jartzen zitzaion.
5. **Dunba txikia**: Ardientzat.
6. **Behor-joarea**: Behorrari jartzen zitzaion.
7. **Dunba**: Zikiroari jartzen zitzaion. Ardiarentzat handi xamarra bazen ere, bidean joateko ere jartzen zitzaion noizbehinka.

ZINTZARRIAREN ATALAK

Garoia: Bertatik sartzen da uzaia.

Uzaia: Gaztainez gehienetan edo haritzegina izaten zen.

Zintzarria edo **joarea**: Txapaz edo letoiz eginiko zatia.

Mingaina: Behien adarra edo idiarena izaten zen normalean. Egun plastikozkoak izaten dira.

Ereñotzuko  **Toki Entitate Txikia**
Gure ondare kulturala azaleratzen

Ereñotzu,2
20128 Hernani

943 55 10 00
ereinotzu@ereinotzu.eus

Bake Prozesua Frantziako hedabideetan

GAINDITU BEHARREKO HARRESIA

Azken urte hauetan, Euskal Herriko bake prozesuaren alde dabilzanen mezua entzun edota irakur daiteke noizean behin Frantziako komunikabide nagusietan. Eramandako pedagogia lan alimale baten uzta da. Orokorrean, aspaldian nagusi den Frantziako eta Espainiako gobernuen tesia delako plazaratzen. Gaia Frantziako komunikabideen bidez zabaltzeko oztopo potoloak dituzte konponbidearen alde ari direnek, eginahala gainditzeko saiatzen diren trabak.



Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

Izan France Culture irratian emankizun bat ala erredakzio-bulegoa Parisen daukan egunkari handi batean erreportaje bat, badirudi azkenean euskal gatazkak Frantziako komunikabideetan kokatzea lortu duela. Are gehiago, badirudi bake prozesuan alde dabilzanen diskurtsoak tokitxo bat kausitzen erreusitu duela. Horretaz galdetuz gero, salbuespenekin orokortasunik ezin dela egin diote konponbidearen alde dabilzanek. Jean-Pierre Massias bake prozesuetan aditua den zuzenbide irakasleak horrela borbiltzen du paisaia mediatikoa: "Aieteko Konferentziaz geroztik tratamendu mediatikoa bestelakotu da, baina horrek ez du erran nahi haien irakurketa dudanez ezarri dutenik".

Lan handia da

Aipamen bat izateko lan handia eraman behar dela ohartarazten du Jean Noël Etcheberri Txetx-ek. *Bake artisaua* eta Bizi!-ko militante ekologista da, eraman aldarririk komunikabideetan kokatzeko lan handia egiten du: "Euskal Herriko Laborantza Ganbararen auziaren garaian, *Le Monde* egunkariaren lehen orria egin genuen; baina hori lortzeko bi aste pasa behar izan nituen Parisen, goizetik arrats, hitzorduz hitzordu, etenik gabe gaia esplikatzen. Komunikabideen pareta hau zeharkatzeko eraman

beharreko lana alimalekoa da". Bake Bideko Maitena Thikoipek ere anitz daki lanketa horretaz. Behin baino gehiagotan entzun izan du Parisko kazetariaren partetik konponbidearen gaian ez dagoela "nahiko mamirik" edota "ikaragarriko tabua" dagoela. Tendentzia aldatu nahian bake prozesuaren azaltzeko helburua finkaturik du Bake Bideak. Komunikabideek rol garrantzitsua dutelako jokatzeko. Massiasen argi du: "Gatazkaren konponbidea iritzi publikotik iragaten da; bultza dezake edo oztopa dezake. Horregatik dira komunikabideak ezinbesteko, eragin handia dutelako iritzi publikoan".

Madrilen ahotik

Orokorki begiratzen bazaie, irakurketa bera gelditzen dela dio Thikoipek: "Hiztegi eta diskurtso ezberdinak kausitzen ditugu artean, baina oraindik Frantzia -eta beraz Espainiaren- diskurtsoa da nagusi. Aspaldiko logika Etcheberri oroitazten duenez: 1983. urtean Espainiako Gobernuak ETari eta orokorki abertzale ezkertiarrei aurre egiteko aurkeztu ZEN Planean (*Plan Zona Especial Norte*) kapitulu bat zuten komunikazioari zuzenduta. Hori horrela, gertakizuna Parisen edota Baionan gertatu arren, segipena sistematikoki Madrilgo berriemaileen esku gelditzen da. Trata-

mendu "higuigarria", Etcheberri ohartarazten duenaz.

Gainera, Paristik kanpo gertatzen den aktualitateak komunikabideetan kokatzeko zailtasunak dituela ohartarazten du bake artisauak: "Frantziaren soilik existitzen dira Parisen existitzen diren gaiak". Adibide argiena aldaketa klimatikoari begira antolatutako Alternatiba herrixkenak du. Baionan hasi eta hainbat herrietan egin izan dituzte, milaka herritar batuz aldi oro; Alternatiba Tour itzulia ere egin zuten bizikletez Frantziatik, Euskal Herriatik eta beste herri batzuetarik pasaz. Hala eta guztiz ere, arras gutti aipatu zen eta interesa berantago, Parisen antolatutako herrixkaren lehen edizioan agertu zen. Bake prozesuari doakionez, aldaketa 2015eko ekainaren 11n sentitu zuten. Egun horretan burutu zuten Legebiltzarreko azpiko solairuan, Paris Euskal Herriko Bakearen Alde konferentzia. "Eboluzioa oso argia zen: sistematikoki Estatuaren tesia zabaltzen zebiltzan komunikabideek ikuspegi ezberdina hartu zuten. Zinezko iraultza mediatikoa izan zen orduan", Massiasen oroitzen duenaz.

Beste elementu bat ere bada hartzeko Thikoiaren iritziak. *Charlie Hebdo*-ren egoitzan gertatu atentatuak ekarri kontzientzia hartzea. Egoera ezberdin batzuk estaltzeko terminologia bera



erabili izanaz ohartu ziren: “Euskal gatazkaren izaerari berriz begiratu zioten eta arras hermetikoa zen hesia orain ez da hain hetsia”. Batez ere, Luhusoko atxilotekin begi-bistakoa gelditu zitzaizen kazetariei gaiaren ez-ezagutza.

Luhusokoaren osagaiak

Atxilotuen lau eguneko galdeketa al-dian, komunikabideetako mezua erabat eraldatu zen: lehen orduetan agertu Espainiaren tesitik hasi eta honen zentzugabekeria azaltzeraino. “Operazio franko-espainiarra nahaspila bilakaturik” edota “ETAren aurkako operazioa gogorki kritikaturik” irakur zitekeen titular gisa. Lehen orduetan jaso informazio ofizialak errealitatearekin bat ez zuela egiten konturatu ziren asko. Apirilaren 8ko armagabetzea arte presente egon zen gaia. Funtsean, armagabetzearen egunaren berri *Le Monde*-k eman zuen, informazioa luze eta zabal azalduz.

Segipen hori azaltzeko orduan Etxeberri hiru elementu zehazten ditu: komunikabideekin garatu harremana, interesa sortzen duen gai bat, “espektakulua” bazen (Guy Debord pentsalariak kontzeptualizaturiko “espektakulu” nozio soziopolitikoari segi) eta aldeko testuingurua (tartean, jihadisten ekintza terroristekin bukatzeko nahia Frantzian zein nazioartean).

Irudian, ETAren armagabetzeari buruzko ekitaldia Baionan; 2017ko apirilaren 8an.

» **MAITENA THIKOIKE, BAKE BIDEA:**
“Berrikuntza eta ausardia puntu bat beharko dugu, ondoko pausoei buruz interesa pizten segitzeko”

» **JEAN-PIERRE MASSIAS, BAKE PROZESUETAN ADITUA:**
“Gatazkaren konponbidea iritzi publikotik iragaten da; bultza dezake edo oztapa dezake. Horregatik dira komunikabideak ezinbesteko, eragin handia dutelako iritzi publikoan”

Komunikabideen kontzentrazio eta pribatizazioaren testuinguruan, “espektakulu” nozio hori kontuan hartu behar dela dio Etxeberri. “Logika kapitalista batean dira, informazioa saldu behar dute eta salduko den gaia nahi dute. Hori jakinda, zure mezuaren jarraipen mediatikoa helburu baldin baduzu, interesa pitzaraziko dien kontakizun edota ekintza formak asmatu behar dituzu”. Ohartarazte horri gehitzen dio ondoko oharra: “Arras argi dugu forma egokitze-ko orduan mami politikoa ez dela moldatu behar”. Mediatizazio bilatze hori helburu bat lortzeko edota norberaren burua babesteko izan daitekeela dio.

Apirilaren 8ko biharamunean haatik aldaketa sentitu zuen Thikoipek: “Betiko diskurtsoa zen berriz, aski okaztagarria, sinesgarritasuna kenaraziz ekimenari”. Kontua da Frantziako komunikabideentzat ere Madrildik etorritako berriemai-leak zirela egon Baionan, Madrilgo soaz begiratzuz gaiari. Geroari begira, kazetarietara harremanak sortzen eta lantzen segituko dutela dio Bake Bideako kideak. Beste elementu bat ere zehazten du: “Berrikuntza eta ausardia puntu bat beharko dugu, ondoko pausoei buruz interesa pizten segitzeko”. Ondoko hitzordu nagusia Parisen ukanen dute: euskal preso politikoei inposaturiko salbuespen neurrien salatze mobilizazioa. ■

Oñatiko ikasleak galdezka:

ZERGATIK DU HIZKUNTZA BATEK BESTE BATEK BAINO BOTERE HANDIAGOA?

Udalak euskalduntzen ari diren arren, udalerriak erdalduntzen ari direla adierazi du UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Horren aurrean, herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa lantzeko hezkuntza proiektua jarri du martxan UEMA osatzen duten herrietako ikastetxe guztietan. Oñatiko Txantxiku Ikastolan eta Elkar Hezi Ikastetxean izan da ARGIA.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Ainhoa Ortega Bretos

@ob_ainhoa

2015ean ikerketa abiatu zuen UEMAk, udalerri euskaldunetako ikasle eta irakasleek euskararen soziolinguistikaren inguruan duten pertzepzioa ezagutu ahal izateko. Jasotako emaitzekin materiala bildu eta *Arnasguneen hezkuntza proiektua* izeneko egitasmoa jarri du abian. Helburua ondorengo da: ikasleak hizkuntzen arteko harremanez jabetzea.

Izan ere, UEMako teknikariek garrantzitsutzat jo dute ikasleak haur direnetik euskal hiztun gisa ahalduntzea, errealitatearen analisia egin ahal izateko. Horretarako, soziolinguistika gaiak landu dituzte DBHko eta Batxilergoko ikasleekin. 2017ko urtarrian eta otsailan izan ziren Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxean eta Txantxiku Ikastolan, ordu eta erdiko saio bi talde dinamiken bidez lantzeko.

“Gure hizkuntza gertuko herrietara zabaltzen lagundu beharko genuke”

Hainbat ikasle azaldu dutenez, hasiera batean ez zuten uste ikastaro horrek eraginik eduki zezakeenik haiengan. Gero, ordea, garrantzizko lanketa iruditu zitzaizela esan dute. Itziar Alonso Elkar Heziko ikaslearen hitzetan: “Hasieran

pentsatzen nuen ez genuela behar, guk euskaraz hitz egiten dugulako beti, naturalki. Baina gero konturatu nintzen gu garela arnagune ez diren herriei lagundu behar diegunak euskararen erabilera sustatzen”.

Hizkuntza gutxitua normaltasunez erabiltzeko baldintzetan dauden herriak dira, kasu honetan, arnaguneak. Hortaz leku bateko hizkuntza nagusia euskara denean, toki hori euskaldunontzat arnagunea dela esan genezake. Kontzeptua ez dago zabalduta eta, ondorioz, euskaldunen hizkuntz komunitatearentzat betetzen duten lidergo papera ere ez da ezaguna askotan. Hala ere, euskararen iraupena bermatzeko arnaguneak ezin bestekotzat jo ditu UEMAk. Hori dela eta, euskararen normalizazio prozesuan arnaguneetako herritarren lidergoa kokatzea garrantzitsua dela azaldu du.

Horren harira, Elkar Heziko ikasleak den Jon Aranzabalek uste du oñatiarrek “erantzukizun handia” dutela arnagune ez diren herriei euskaraz egiteko joera transmititzeko, “beraiena ere bada euskara, eta hori erakutsi behar diegu”. Antzekoa pentsatzen dute Miren Santos eta Leire Egaña Txantxiku Ikastolako

ikasleek: “Arnasguneetan bizi garenok paper garrantzitsua jokatzeko dugu euskararen sustapenean. Gure hizkuntza gertuko herrietara zabaltzen lagundu beharko genuke”. Izan ere, herritik irteerakoan gaztelaniaz hitz egiten dutela esan dute hainbat ikasle, bestela ulertuko ez dituztela uste dutelako.

“Erdaraz ikusi behar ditugu telesailak, ez daukagulako beste aukerarik”

Ikastaroan landutako jarduera bakoitza hausnarketa labur bat egitera bideratuta egon da. UEMAk azaldu duenez, ikasle bakoitzak bere ibilbidea, hausnarketa edo iritziak emateko bidea lantzen du proiektuak.

Jordi Sanchez Elkar Heziko ikasleak, esaterako, katalanaren egoerarekin alderatu du euskararena: “Katalanaren erabilera samurragoa da, bertakoek gehiago zaintzen dute hizkuntza, instituzioetatik ere bultzatzen delako. Hemen jendea eroso bizi da gaztelaniaz. Zertarako ikasiko dute euskaraz gaztelaniaz bizitzeko arazorik ez badute?”.

Euskara teknologia eta berrikuntzeara egokitzea oso garrantzitsua dela ere aipatu dute hainbat ikasle, horiek



erdaraz kontsumitzeak “eragin handia” duelako haiengan. Txantxiku Ikastolako Danel Iñurrategiren ustez, oraindik ez dago gazteentzako “kalitatezko programaziorik euskaraz”: “Askotan erdaraz ikusi behar ditugu telesail eta programak, ez daukagulako beste aukerarik, eta horrek ere bere ondorioak ditu, batez ere gazteenengan”.

Literaturaz ere aritu da Elkar Heziko Oihana Urzelai: “Euskal idazle batzuek pentsa dezakete gaztelaniaz idazten badute salmenta handiagoak izango dituztela. Baina gehiago hurbilduko dira bere publikora euskaraz idazten badute”. Izan ere, azaldu du euskara ez dela besterik gabe hizkuntza bat, “euskara kultura da, gure kultura, eta zabaldu beharra dugu, bestela gure euskaldun izate hori galduko dugulako”.

“Inkontzienteki egiten dugun horrek balore handia du”

Ikastaroa praktikan jarri aurretik, hainbat behar identifikatu zuen UEMAK. Besteak beste, azaldu zuen testuinguru eleanitzean bizi diren ikasleek ez dutela euskararen normalizazio prozesua modu sakonean barneratuta: galera

Argazkian Oñatiko Txantxiku Ikastolako ikasleak. Haien herria UEMAKo kide da eta ikasleek aitortzen dute berez ateratzen zaiela euskaraz aritzea. Euskal hiztun izateaz jabetzeko ikastaroa jaso zuten urte hasieran eta artikulu honetan haien gogoetak azaldu dizkigute.

prozesua, berreskuratzeko beharra, hizkuntza hautuak kontzienteki egin beharra, eta abar.

Hori dela eta, ikasleek euren hizkuntza praktikei buruz hausnartzea beharrezkoa dela ikusi zuten. Eta ikastaroaren bidez, euskararen egoeraren aurrean erantzuteko beharra dagoela ikusarazi nahi izan diete ikasleei.

Horietako gehienek adierazi dute Oñatin euskaraz hitz egitea naturalki ateratzen zaien zerbait dela, eta ez zekitela zer nolako garrantzia duen. Horrela azaldu du Elkar Heziko Ione Urbinak: “Ikastaroak balio izan dit euskarak bizi duen egoeraz jabetzeko, azken batean, guk inkontzienteki egiten dugun horrek balore handia du”.

Horren harira, herritik irtendakoan gaztelaniaz hitz egiteko duten ohitura aldatu behar dutela esan dute askok, eta egunerokotasunean euskaraz hitz egiten

ez dutenei lagundu. Txantxiku Ikastolako Aritz Agirreren hitzetan: “Uste baino inportanteagoa da besteak euskaraz hitz egiten laguntzea. Oñatin euskararen egoera ona den arren, zenbait lekutan oso kaxkarra da. Gure herrian ere horrela amai genezake? Ez gara jabetzen gertatzen ari denaz eta eduki ditzakeen ondorioez. Erdarak botere handia du”.

“Botere” horren inguruan mintzatu dira ikasleak. Gaztelaniak indar handia duela eta euskara jan egiten duela aipatu dute batzuek. Beste hainbat galdezka ari-tu dira: “Zergatik du hizkuntza batek beste batek baino botere handiagoa? Nork ematen dio horrenbesteko indarra gaztelaniari, ingelesari edota frantsesari? Zergatik iruditzen zaigu euskara beste hizkuntza batzuk baino ahulagoa dela?”.

Galdera horiei erantzuna bilatzeko asmoz, horrela azaldu du Elkar Heziko Marina Elorzak: “Joera handia dugu pentsatzeko euskara hizkuntza txikia edo ahula dela. Baina ez da horrela. Ikastaro honetan ikasi dudana gauzarik garrantzitsuenetariko bat da, euskara ez dela ahula berez, ahulduta dagoela zenbait tokitan, eta gure esku dagoela indartzea”. ■

ASKAPENA 30 URTE MUGAZ GAINDI ERAGITEN

Askapena erakunde internazionalistak hiru hamarkada daroatza Euskal Herriaren eta munduko herrien artean elkartasun zubiak eraikitzen. Ezin uka, aldaketa ugari dakartela 30 udaberri; are gehiago, borrokan murgildurik dauden lurraldeez edo herri zapalduz mintzo bagara. Horretaz jakitun, garaian garaiko beharretara egokitzekeo neurriak hartu izan ditu Askapenak, beti ere, sortze egunean finkaturiko oinarritzko balioak mantenduz.



Iker Oñate Aiausti

@Iker_Onate

ARGAZKIAK: ASKAPENAK UTZIAK

Aintzat hartu beharrekoa da 1979an Nikaraguan pizturiko Iraultza Sandinista, Euskal Herriko mugimendu internazionalista -ez, Askapena- aztertzean. "Nikaraguako prozesuak euskal herritarren kontzientziak astindu zituen. Hala, mugaz gaindi zegoenaren inguruko jakingura piztu zitzaigun", dio Juan Jose Peciñak, Askapenako kide ohiak.

Kanpo gatazkekiko kezkak bultzaturik, antolatzeari ekin zion gizarteko sektore batek; tokian tokiko talde internazionalistak sortu ziren. Euren arteko harremana bermatzeko, bestalde, Euskadiko Elkartasun Komiteen Koordinakundea jaio zen; Euskal Herriko erakunde internazionalistak batu zituen askotariko jendea aurki zitekeen batzarrean. "Erakunde anitza zen. Beraz, internazionalismoan sakontzen hasi ginen, askotariko estrategiak agertu ziren", dio Peciñak.

Besteak beste, koordinakundean, ez-baian zegoen Euskal Herriak nazioarteko elkartasunean izan beharreko rola. "Gehienok, Euskal Herrian diseinaturiko internazionalismoan sakontzeko

garaia zela uste genuen, gu ere gatazkan murgilduriko herria baikin. Modu horretan, joan-etorriko elkartasuna zegokeen erdigunean", argitu du Peciñak. Ordura arte, beste herriekiko elkartasunean besterik ez zuen sakontzen koordinakundea: "Soilik eman egiten genuen, ezer jaso gabe".

Hori horrela, erakunde internazionalisten estrategia aldaketa eskatzen zuen aldarria indartzen zihoan; eta, horrek, eragina izan zuen hurrengo urteetan internazionalismoaren praktikan. Aipaturikoa agerian geratu zen 1987ko urriaren 7an Zarautzen eginiko batzarrean, bitan zatitu baitzen Euskadiko Elkartasun Komiteen Koordinakundea: Askapena eta Komite Internazionalistak eragileak sortu ziren egun hartan. Beraz, 1987an hasi zen Askapenaren ibilbidea.

Europako borroken presentzia

Garaian garaiko egoerara moldatu beharra izan du Askapenak, tarteka, estrategien norabidea aldatuz. Bide horretan, 90eko hamarkadaren amaieran -batez



ere, 1994ko altxamendu zapatistaren ostean- Europako herri zapalduetako elkartasunean sakontzea erabaki zuen, ordura arteko jarduera zokoratu gabe. "Europako herri zapalduetako elkartasunean sakontu behar genuela konturatu ginen, gure guda zelaia den aldetik", azaldu du Goienetxeak. Hori horrela, Korsika, Britainia eta Eskozia bezalako herrialdeetara hedatu zuten jarduera esparrua.

Europako herriekin elkarlana indartzen jardun du Askapenak azken urteetan. "Europar gogor dihardu inperialismoak. Tresna zapaltzaileak sortzen ditu; eta, horren aurka egin beharra dago. Europako beste erakunde batzuek ere borroka berdinean dihardute, beraz, lagungarri zaigu haiekin estrategiak elkartrukatzea", esan du Goienetxeak. Zeregin horren bueltan dute, adibidez, NATOren aurkako borroka.

Brigadak, formazio iturri

Askapenaren estrategiaren barruan, garrantzia handia ematen diote formazio-ri; brigadak antolatzen dituzte horren



Aurtengo brigaden aurkezpena Agurainen.

bidean. Askapena sortu aurretik jaio zela brigaden egitasmoa: 1984an antolatu zen Euskal Herriko lehen brigada, Nikaraguarekiko –funtsean, Iraultza Sandinistarekiko– elkartasunean sakontzeko eginiko nazioarteko topaketaren ostean. Garai hartan, batez ere, laborantza kooperatibetan edo eraikuntzan laguntzen zuten brigadako kideek. “Asko ikasten genuen brigada horietan”, dio Peciñak.

Bide horretan, urteek aurrera egin ahala –eta, batez ere, 1987ko estrategia aldatetaren ostean–, Askapenak garrantzia handia eman dio militanteen eta brigadako kideen formazioari; brigaden egitasmoan esku hartzen duenak ez duela zertan erakunde internazionalistako militante izan. “Beste herrietako egoera ezagutzen ez badugu, ezinezkoa da haiei elkartasuna adieraztea. Inguruko injustiziekiko ezjakina den gizartea erai ki gura du sistemak. Beraz, horren aurka egin beharra dago”, azaldu du Peciñak.

Finean, brigadako kideak eurak dira Euskal Herriaren eta beste herrien arteko zubi lana egiten dutenak. Behin norakora helduta, brigadako kideena da

EUSKAL HERRIAREN LAGUNAK, DATORREN ELKARTASUNAREN SAREA

Eman ez ezik, elkartasuna jaso egiten du Euskal Herriak. Badira urteak munduko herri askotan, Euskal Herriari elkartasuna adierazi nahirik, eragile internazionalistak agertzen hasi zirela. Bide horretan, duela hamar urte talde horiek saretzeko beharra ikusi zuen Askapenak; eta hala, Euskal Herriaren Lagunak (EHL) sarea sortu zuten. Gaur-gaurkoz, Venezuelen, Irlandan, Italian, Alemanian eta Espainiako Estatu-ko zenbait herritan, besteak beste, auki daitezke EHL-ko elkartasun komiteak.

“Euskal Herriaren aurka egindako eraso- en arabera antolatu da EHL sarea. Bide horretan, estatu-ek gure aurka gogor jardun dutenean, indartu egin da EHL”, dio Askapenako kide Izaskun Goienetxeak. Horren adibide, Askapenaren aurkako 2010eko sarekadaren bueltan, mugaz gaindiko eragileek helaraziriko elkartasuna: atxilotuei munduko toki askotatik iritsi zitzaizkien babes mezuak. Egun kargurik gabe libre dauden sei kide atxilotu zituzten sarekada hartan.

Euskal Herriko egoeraren inguruko informazioa eskaintzearen ardura. Horrez gain, kontrako bidea ere eurei dagokie, hau da, mugaz gaindiko herri horiei buruzko informazioa ekartzea; hitzaldi, tailer eta gisako beste ekimenen bidez. Esan moduan, erakunde internaziona-

listak joan-etorriko harremanen dihardu beste herrie-kin. Euskal Herriaren Lagunak (EHL) sarea da etorriko harremanaren adierazle argiena.

Bestetik, gaur-gaurkoz, harrera ona du Askapenaren brigaden egitasmoak. Aurtengo brigadetan 65 bat lagun-ek

parte hartuko dute. Jada hasiak dira aurre lanketarekin. "Formazio saio minimoak jasotzeaz aparte, garrantzitsua izaten da brigadako kideak elkar eza-gutzea, gero, denbora luzea igaro behar izango baitute elkarrekin", dio Goienezteak. Aurtengoan, Argentina, Uruguai, Bolibia, Brasil, Mexiko, Venezuela, Kuba, Palestina, Herrialde Katalanak, Britainia-ZAD eta Italiara egingo dute bisita Askapenako brigadek.

Oro har, 2017ko brigada kanpainari dagokionean, "irakurketa positiboa" egin du Askapenak. "Jendearen interesa pizten jarraitzen dute brigadek; eta, gainera, sekulako prestutasuna agertzen dute izena ematen duten horiek", azaldu du Goienezteak. Dena den, Askapenak ere badu meriturik egitasmoaren arrakastan: hiru hilabeteren buruan brigadei buruzko 70 hitzalditik gora eskaini dituzte.

30 urteak, ospatzeko

Lanerako ez ezik, aisialdirako tartea hartzea komeni da usu. Bada, bide horretan dihardute Askapenako kideek, 30. urteurrenaren ospakizun egunaren antolaketan murgildurik. Jada finkatuak dituzte eguna eta lekua: urriaren 7an elkartuko dira Berriozarren. Egun osoko egitaraua prestatzen dihardute; besteak beste, ekitaldi politikoa, bazkaria eta kontzertuak egingo dituzte, hiru hamarkadetako brigada kideak elkartu nahirik.

Urteurrena ospatzeko hautaturiko lema ere jakinarazi dute: *Borrokak uztartzen, herriok burujabe!*. "30 urte hauetan borroka anitz ezagutu ditugu; lagun ugari egin dugu bidean. Hori horrela, borrokak uztartzen dihardugu, hein bateko burujabetza bermatuko baitute aliantzek", dio Goienezteak. ■



IRAULTZA SANDINISTA: INTERNAZIONALISMOAREN PIZGARRI EUSKAL HERRIAN

Nikaraguako Iraultza Sandinistak esangura handia du elkarte internazionalisten sorreran. Herriko sektore baten kontzientziak astindu zituen, elkartasun eta borroka eremua Euskal Herritik kanpora zabalduz. Horren adierazle, 1980an, matxinatuekin elkartasuna adieraziz, Euskadiko Elkartasun Komiteen Koordinakundeak Donostian eginiko bilkura.

Ordurako, Iraultza Sandinista martxan zegoen. Hain zuzen, Nazio Askapenerako Fronte Sandinistak (FSLN) 1979ko uztailaren 19an lortu zuen Somoza familiaren diktadura garaitzea, gerrilla-taldeek Managua hiriburuan sartzea lortu zutenean; Anastasio Somozaaren agintearen amaieraren hasiera izan zen egun hura.

Indar ezkertiarrek osaturiko gobernu demokratikoa finkatu zen Nikaraguan;

eta, berori, 1990eko otsailaren 25era arte egon zen indarrean. Agintea galdu zuten egun hartan, hauteskondeak Oposizioaren Batasun Nazionalaren aurka galdu ostean. Ordura arte, gobernuaren aurka ziharduen oposizioak, AEBen laguntzarekin.

Gatazkan murgildurik zegoen Nikaragua. Horretaz jakitun, Euskal Herriko militante internazionalistek laguntza bidaltzeari ekin zioten; besteak beste, materiala eta teknikoak irakasleak edota medikuak, kasu-. Bestalde, erakunde internazionalistek bultzaturiko protesta kanpainak gora egin zuten Euskal Herrian. Tartean da 1981ean *Eskuak Nikaragutatik kanpo*. Ez dira pasako lemapean antolaturiko kanpaina; osteko urteetan ere antolatu zuten gisakorik.

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak



MOMIETATIK DENA APROBETXATZEN DA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Erromatar Inperioa, K.o. I. mendea. Plinio Zaharrak (23-79) jaso zuenez, betuna sendagai gisa erabiltzen zen: zauriak eta azaleko gaixotasunak sendatzeko, hagineta mina arintzeko edo, ardoarekin nahastuta, beherakoa eteteko. Greziarrek ere erabiltzen zuten; *asphaltos* esaten zioten. Persiarrek, aldiz, *mumia* deitzen zioten eta hortik dator "momia" hitza. Izan ere, egiptoarrek betun modukoak eta erretxinak erabiltzen zituzten gorpuak kontserbatzeko.

Antzinaroan, substantzia organikoen nahasketa beltza lortzeko iturri bakarra zuten: Itsaso Hilaren inguruko biltegi naturalak. Baina Egiptoko momia zaharrek aurkitu zituztenean substantzia beltz likatsuz estalita zeudela konturatu ziren, erretxinak denboraz belztu egiten baitziren. Ustez, sendagai mirakulutsuaren iturri alternatiboa topatu zuten. XII. mendetik aurrera, substantziaren izen persiarra gorpu osoa izendatzeko erabiltzen hasi zen, eta betunaren ahalmenak ere momia osoari egotzi zizkieten. Sinesmen horri merkatarien marketina gehituta, Erdi Aroan momiak salgai gutiziatu bihurtu ziren. Milaka momia eraman zituzten Europara, han birrindu eta hauts moduan saltzeko. Hautsa hartzen zuenak momien botere misterioetsua lortuko zuten.



Margaret Murray egiptologoa, momiari bendak kentzeko prozesua azaltzen 500 ikusleren aurrean, Manchesterren, 1908an.

Momiak lortzea geroz eta zailagoa zenenez, prezioek izugarri egin zuten gora. Zenbait oportunistak momiak ekoizten hasi ziren orduan: inork nahi ez zituen gorpuei betuna ematen zieten eta eguzkitan lehortzen uzten zituzten momia-hautsa lortzeko. Europar XVIII. mendera arte kontsumitu zuten plazebo garestia.

XIX. mendean gizarte viktoriarreko eliteek beste erabilera bat eman zieten gorpu baltsamatuei: momiak biluzteko festak antolatzen zituzten. Ikuskizun batzuk etxeetan egiten zituzten, jende gutxiarekin; beste batzuk antzokietan, eta sarrerak berehala agortzen ziren.

1908an Margaret Murray egiptologoa Nekht-ankh eta Khnumu-Nekht anaiei bendak kendu zizkien eta gorpuak aztertu zituen 500 pertsonaren aurrean. Momiak magikoa ez zirela erakutsi nahi zuen, misteriorik gabeko gorpu arruntak zirela.

XVI. mendetik aurrera, momia-hautsa pigmentuak egiteko ere erabili izan zen. Edward Burne-Jones (1833-1898) margolari ingelesak momia-marroia izeneko pinturaren osagai nagusiaren berri jakin zuenean, estudioan zeuzkan kolore horren flasko guztiak hartu eta duintasunez ehortzi zituen, profanatutako arrastoek, azkenean, atsedan har zezaten. ■



ALEF

Kriogeniak mende erdi bete du

1960ko hamarkadaren erdialdean gorpuak kriogenizatzeko alferrikako hainbat saiakera egin zituen Alcor fundazioak. Azkenik, 1967ko urtarrilaren 12an, James Bedford izeneko Los Angelesko psikologia irakaslea minbiziak jota hil zen 73 urte zituela, eta haren gorpua kriogenizatuta kontserbatzea lortu zuten lehenengoz. Agente krio-

babesleak eta dimetilsulfoxido izeneko substantzia injektatu zizkieten Bedfordi. Egun, Alcorrek Arizonako basamortuan duen egoitzan dago haren hilotza, kontserbazio kapsula batean sartuta, orduz geroztik izoztutako beste 147 gorpuekin batera. Eta, usteak uste, Walt Disneyren gorpua ez dago 148 horien artean. ■

Lore hautsetan meزالagun



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Udaberria zaigu loreen sasoia. Ez da bakarra, ordea; loraldia ez da urte osoan amaitzen, bukatzen ez den emana da loreena. Etengabeko lore batean bizi gara. Aurten oraindik ahorik, ez abereenik ez segarenik, ezagutu ez duten belazeak ikusgarriak daude, lore desdetxa! Lorez lore dabiltzanen hegaldien zunburrunak sinfonia dirudi.

Etxeko teilatuaren hegalepean dugun erle-eultzea denak emanda dabil, sasoi honetan aspaldiko urteetako erle dantza handiena sumatzen dut. Izan ere, bada loretik! Eta loreak polinizatzailea behar. Polinizazioa aise ulertzen da: loreko aieka arrak sortzen duen lore hautsak edo polen aleak beste lore bateko aieka emera iritsi behar du. Emean gauzatuko du ernalketa polenak.

Lore hautsak loretik lorerako bide hori nola egiten du? Zubilan hori noren ardura da? Haizeak lan ederra hartzen



Inurria ahabiaren lorearen barruan.

du, espezie askoren meزالagun bikaina da. Beste espezie ugari animaliak behar dituzte urgazle. Batzuek animalia jakinekin dituzte tratua lotuta. Horiiek estutasun handiak izan ditzakete animalia hori galbidean sartzen bada. Badira polinizaziorako animalia asko erabiltzen dituzten landareak; horiek samurragoa dute etorkizuna, baten faltan beste batek egingo dizkie-eta bere-ter laguntzaile lanak.

Bere-ter, urgazle, meزالagun, laguntzaile... Norbaiten premian dira landareak. Haiek erakartzeko eta bere lana saritzeko, loreak usainak, kiratsak, ko-

loreak, formak eta abar sortuko ditu: "txerrimuniak ordainetan".

Loratzen diren landareen lautik hiruk polinizatzailearen bat behar du. Horieta-tik mila inguru txoriak, saguzarrak edo ugaztun txikiak dira. Beste berrehunen bat mila intsektu dira: euli, tximeleta, kakalardo, inurri, liztor, erlastar, sits, erle...

Gure elikaduraren hirutik bat haien esku dagoela esan ohi da. Zaindu ditzagun: ez erabili pestizidarik eta utzi loratzen belaze eta landareki naturalei. Eta, gerezi bat edo pipermin bat ahoratzen duzunean, gogoan izan intsektu urgazleak. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Neguan ortuan ortuariez gain txilarra izaten dut ereinda. Udaberrirantz moztu, lurra bueltatu eta lurpera botatzen dut. Hori egin ostean karetu dezaket? Adiorik ez.

Juan de Atxirika (Murjeta)

Kaixo Juan. Hasteko, barkatu atzerapena, baina zure galdera hau ez dakit nondik nora ibili dugun eta atzera geratu



egiten duzu, lan hori lurrerako oso ona da. Eta egia da, ondoren karetea ona da. Ahal baduzu zuzenean ez karetu. Egun batzuk utzi. Aukerarik ez baduzu, segituan landu behar duzulako, karetu eta kito.

da... Bestetik, zer da txilarra? Nik uste guk txirta deitzen duguna izango dela. Baina bada ez pada galdetu egiten dizut, ilar txiki baten tankera-koa da? Hala bada oso ondo



Zazpi herrialdeetako sagardoa Hendaiako Sagarno Egunean



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: WWW.CERISE-ITXASSOU.COM

Ekainaren 17an egin zuten Sagarno Eguna Hendaiako. Duela hogeitau urte inguru hasi ziren egun hori ospatzen, baina urte pare bateko deskantsuaren ondoren, iaz berreskuratu zuen ekimena Baleak elkarteak.

Aurtengo festan egon da nobedade-rik: Zazpi herrialdeetako Sagarno Eguna izan da Hendaiakoa, lehen aldiz, Jesus Arzallus Baleak elkarteak kideak azaldu bezala: “Zuberotar bat aurkitu genuen, Iruriko auzapeza, sagardoa egiten hasia zena. Orduan ikusi genuen posible zela zazpi herrialdeetako sagardoarekin egitea eguna”.

Izan ere, sagardo tradizioa bereziki Gipuzkoarekin lotu izan badugu betidanik, Lapurdin bertan sorpresa eramanez Baleak elkarteak: Etxean sagardoa ekoizten dutenak uste baino gehiago dira, sei bat sagardogile topatu dituzte horretan ari direnak. Nafarroa Beherean ere, Irulegiko arnategitik hasita eta bertako jendeak bultzatuta, sagardoa egiten eta saltzen ari dira. “Badago tradizioa, eta badago jarduerak ga-

ratzeko gogoia ere”, dio Baleak elkarteak kideak. Badu etorkizunik Ipar Euskal Herriko sagardoak, beraz.

Plaza bete jende, plaza bete sagardo

Urteko ekimenik arrakastatsuenetakoa du Baleak elkarteak Sagardo Eguna. “Badu ‘gantxoak’, sagardoak jendea erakartzen du eta egun herrikoia da oso”, azaldu du Arzallusek.

Aurten ere egitarau zabala zuten antolatua: arratsaldeko bostetatik aurrera txalaparta, bertsolariak, herri kirolak, taloak, eta noski, sagardoa izan zuten hurbildutakoek. Sagardotegi bakoitzaren ondoan, gainera, Hendaiako hainbat elkarte aritu ziren jateko pintxoak eskaintzen. Herriko eragileen parte hartzea bultzatu eta ekimena herrikoia bihurtu nahi izan dute antolatzaileek kultur nahiz kirol arloko elkarteak inplikatuz.

Pozik agertu dira antolatzaileak herri-tarren erantzunarekin. Plaza bete jende izan zen eta 800 edalontzi baino gehiago banatu zituzten arratsaldean zehar, giro bikainean. Beroari aurre egiteko ongi etorriak izan ziren Euskal Herriko zazpi herrialdeetako sagardoak. Kasik sagardorik gabe gelditu omen ziren... ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Ekainak 27: Donostia Altzaporr Komikihitzaldia

19:00etan Koldo Mitxelenan, Jakoba Errekondoren azalpenak eta komikilarien sormena.

Ekainak 28: Barakaldo Natur ibilaldia

17:00etan Bagatzako elizatik abiatuta, “Naturguneak eta dorretxeak” ibilaldia.

Ekainak 29: Derio Azoka ekologikoa

Baserri Antzokian, seminarioaren atzean.

Ekainak 30: Gasteiz Liburu aurkezpena

“Baserri biziari eusteko lanak. Nekazaritza sindikalismoaren historia bat” Jose Anjel Aldairen liburu aurkezpena. 12:00etan Villason.

Uztailak 1: Sartaguda Nafarroako Nekazaritza Ekologikoa, bisita gidatua

Nafarroako Gobernuaren etxaldera bisita gidatua. Argibideak jaso eta izena emateko: 948 427577. E-posta: ingurune.partaidetza@navarra.es.

Uztailak 1: Oñati Tximeletak identifikatzeko ibilaldia

10:00etan Natur Eskolan. Izena emateko: 943 716404 utzi izena eta telefonoa zenbakia.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"URA" DISKOA

1

Siroka taldearen Ura diskoa

Siroka musika taldea 2009ko udan sortu zen. Ezagunak ziren lagun batzuk abesti bi sortzeko intentzioarekin batu ziren eta egindakoak sorrazitako haize boladek Siroka musika taldearen jaiotza ekarri zuten. *Haize boladak*, *Karosi*, *3.SZN* eta *Malutak* diskoaren ostean, 2016ko apirilean grabatu zuen taldeak *Ura* diskoa. Lau kantu berri, "Malutak" proiektuko lau kantuek eta erremix bat osatzen dute maluten urtzearekin jaio den diskoa. Sirokan rocka da oinarria, ahots melodikoa eta sinpletasuna. Euskal Herriko errealitatean kokatuak, bidegabekerien salaketak eta inposatutako sistemaren aldaketarako grinak gidatzen dute taldekideen ideologia. Uztailean zehar bosna disko zozketatuko ditugu ARGIAkoen Guneako parte hartzaileen artean.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



TAUPAKA SORTZAILEON ELKARTEA

<http://taupaka.eus>
taupaka@gmail.com

#autoeraketa
#sormena
#musika
#kulturalibrea

Uztaileko sariak

1



**Siroka taldearen
"Ura" diskoa**
5 disko

2



"Beduino bat Karibe aldean"
liburua
4 ale

3



**Bilboko Kafe Antzokirako
sarrerak**
Bi pertsonarentzako bina sarrera

4



**Ekologistak Martxan
"Energia Trantsizioak" liburua**
3 ale

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

Kanada Euskal Herri tik lehen baino gertuago



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Euskaldunon arbaso baleazaleek bereak eta bi pasako zituzten Ternuaraino ailegatzeko. Gure aldizkariak astero egiten du ez Ternuarainoko bidaia. Aitor Imaz ARGIAzalea han bizi da eta lehen Internet bidez jarraitzen bazuen ARGIA, astekaria jasotzen hasi berri da. Itsasoz bestaldetik nola begiratzen digun jakitea polita litzateke, ezta?

2010eko udazkenean egin zuen Kanadara lehen bidaia hernaniarrak denboraldi bat atzerrian pasatzeko gogoz. Orduz geroztik bizi da Toronton, sorterrira bisitaren bat edo beste egin badu ere. Torontoko Garraio Batzordeak duen proiektu batean ari da lanean, ingeniartza enpresa batean, garraio publikoaren inguruan, baina gertutik jarraitzen du Euskal Herrian pasatzen dena. Gertukoek ematen diote inguruan gertatzen denaren berri, Hernaniko kontuak jarraitzeko *Hernaniko Kronika* herri egunkarira jotzen du, eta albiste orokorragoak jasotzeko egunkariei eta euskal txiolariei erreparatzen die.

Baina saltsa horretan guztian non kokatzen da ARGIA?

Euskal Herriatik datozen albisteak nahiko gertutik jarraitzen ditut, baina sentitzen nuen beharra gaur-gaurko kontuek askotan estaltzen dituzten gaiei buruz



ere patxadaz irakurtzeko. ARGIAk bi alderdi horiek bikain jorratzen ditu, beti ere ikuspuntu propio batetik. Horrek ARGIA berezia egiten duela esango nuke euskal komunikabideen unibertsoan. Betiko gai eta pertsonaiez haragoko zerbaiten bila nenbilen eta ARGIAk hori ematen dit.

Zer inpresio eman dizu aldizkariak, lehen atxean jaso duzunean?

Gaien aniztasuna eta irudiek hartzen duten garrantzia gustatzen zaizkit. Etxean jasotako lehenengo aldizkaria kanadar bati erakutsi nion eta nahiz eta idatzitakoa ez ulertu oso itxura ona hartu zion, nik uste irudiei erreparatuz konturatu zelako aldizkariak askotariko kontuak tratatzen dituela.

Zergatik ARGIA?

Batetik, gustatzen zait Interneten duen bizia. Ez da soilik paperekoaren eduki-artxibo bat, bere izaera propioa hartu du. Bigarrenik, eskertu dut harpidetzen eredu tradizionala hankaz gora jarri izana. Komunikabide baten eta komunikabide horren irakurle goaren arteko harremana non datzan maiz izaten da eztabaidagai, baina egia esan gutxitan jartzen da kolokan betiko saltzaile-erosle eredu. ARGIAren atrebentzia gai honetan estimatzekoa da. ■



Bertsozale Elkartearekin Euskal Herriko Txapelketarako elkarlana

Estibalitz Esteibar Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Komunikazio taldeko langileak iragarri digu irailaren 23an hasiko dela Euskal Herriko Bertso Txapelketa. Urteetako harremanari eutsiz, aurren ere sustapen trukea egingo dugu: Txapelketa iragartzeko euskarriak ikusiko dituzu ARGIA, eta Txapelketaren euskarrietan ikusiko duzu ARGIAren logoa.

Sarean arrantzatuak

Iñaki Kasares

@ikasares

Gaurko bazkaria Aleida Guevara mediku kubatarrarekin egin dut @argia ta @sarean-i esker, eta plazerra handia izan da

Jabi Zabala

@sarean

Estimatuta. Plazera nirea harekin luze solas eginda

Ekaineko sarituak

- **Txakur Gorria:** Iñaki Idigoras (Oñati), Arrate Hernandez (Pasaia), Luis Xabier Ugalde (Okondo), Auro Ansorregi (Mutriku)
- **Kale Kantoi:** Ana Gonzalez de Txabarri (Donostia), Imanol Alvarez (Bilbo)
- **Josu Bergararen diskoa:** Iñaki Osoro (Eibar), Iraitz Otaño (Azkoitia), Idoia Ormaetxea (Durango), Pablo Perez (Iruñea)
- **Kontseilua:** Mayi Iza (Hondarribia)

NAPOKA IRIA

"JAKIN BEHAR DA EGINDAKO BIDEARI BUKAERA EMATEN, BERRIAK IREKITZEKO"

2017/07/07an, Eibarko Koliseoan. Hori da Napoka Iriaren 12 urteko ibilbideari bukaera emango dion kontzerturako hitzordua. Bi urteko geldialdiaren ostean, zaleen galderak behin betiko isilarazi eta agurreko kontzertua egitea erabaki dute. Laster utziko duten entsegu lokalaren ondoko tabernan elkartu gara Miren Narbaiza eta Ander Mujikarekin, ibilitako bideari begira jarri eta topa egiteko. Nahigabe, baina, berriketak beste toki batzuetara ere eramán gaitu.



Lander Arretxea Berezartua

@larretxea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Urte batzuk beranduago ezagutu zintuztegun askok. Nolakoa zen Napoka Iria horren urrun dirudien 2005 hartan?

Miren Narbaiza: Gogoratzen dut ezagutu ginela Legarreko entsegu lokaletan, Eibarren. Orduan Ander Arte Ederrak ikasten ari zen Leioan, eta ni oraindik batxilergoan nenbilen. Gauza asko deskubritzen dira adin horretan, eta gu hasi ginen leku guztietan elkar topatzen...

Ander Mujika: Sortu genuen talde bat lau lagunekoa. "Lo ez", zuen izena. Entsegu batzuk egin, eta pare bat kontzertu eman genituen soilik. Haietako bi musika elektronikoarekin lotutako beste bide batean murgildu ziren, eta gu biok Mirenen abesti batzuekin hasi ginen probak egiten. Kontzertu batzuk eman, eta Legarren grabatu genuen gure lehenengo maketa, sei kanta zituen.

Zer etortzen zaizue burura orain sei kanta haiek entzutean? Gainditu dute urteen azterketa?

A. Mujika: Niri, orain entzuten jarrita

ere, asko gustatzen zait maketa hura, benetan. Bi egunetan grabatu genuen, eta oso freskoa iruditzen zait. Baditu hobetu daitezkeen gauzak, noski, baina oso txukuna da.

M. Narbaiza: Egia esan oso ondo dago, bai. Soil soil da, oso duina. Oraindik ere identifikatuta sentitzen naiz kanta haiekin, eta zuzenekoetan ere jo izan ditugu batzuk: *Kea*, adibidez, ordukoa da.

Lehenengotik azkenekora: 2013an, *Arnasten ikasteko berriz kaleratu zenuten, askok idatzi zuenaren arabera, zuen lan biribilena*. Gogoan dut Lugaritzeko lehen kontzertuan sarrerak agortu zirela. Zuen tzat ere izan zen disko hura halako inflexio puntu bat?

A. Mujika: Kualitatiboki diskoan aldatarik izan bazen, batez ere izan zen askoz gehiago landu genuelako, askoz ordu gehiago eskaini genizkiolako. Urtebete lehenago gure lanak utzi genituen Napoka Iriarekin buru-belarri jartzeko, eta erabaki horrekin batera, urte oso bat

eman genuen diskoa prestatzen. Grabaketa bera ere luze joan zen, eta diskoan nabaritzen da.

M. Narbaiza: Jendearen harrera ere oso ona izan zen. Orduak sar ditzakezu baina horrek ez du bermatzen arrakasta izango duzunik. Egia da disko horrekin emandako kontzertuak, bai Lugaritzen, baita beste tokietan ere, sekulakoak izan zirela. Aurretik asko jutzen genuen, eta ez genion horregatik kontzertu txikiak emateari utzi, baina egia da orduan iritsi ginela beste publiko batengana.

2005tik ikasketekin edo lanarekin uztartu eta gero, nolakoa izan zen Napoka Iria zuen ogibide (ere) egitea?

M. Narbaiza: Erabakia erraza izan zen. Kontzertu asko ari ginen ematen, eta biok geunden gure lana uzteko gogoz. Ilusioa ere bagenuen. Gogoratzen dut, hala ere, lagunei kontatu eta susto aurpegia jartzen zutela.

A. Mujika: Beldurrak ere bagenituen



noski. Presioa sortzen da: dirua behar duzu, azken finean, eta horrek gauza asko aldatzen ditu. Eman zigun aukera ordu eta esfortzu pila Napoka Iriari eskaintzekoa; baina aldi berean presio horrek ikuspegia aldarazten dizu, eta desgastea ere badakar. Hala ere, alderatuta nik aurrez nuen lanarekin, oso garai polit eta atsegin bezala gogoratzen dut.

M. Narbaiza: Oso desberdina da zuk zure eguneroko ogibidea izan eta asteburuan oholtzara ondo pasatzera ateratzea, edo aste guztia egotea astebururako prestatzen. Ondo dago, denbora asko eman diezaiokezulako, baina orduan beste aspektu batzuek ere arduratu behar zara. Norbaitentzat lan egiten duzunean deskonektatu dezakezu, guk ez.

A. Mujika: Dena den, ordurako kontzertu asko ematen genituen beste lan batekin uztartzea ia ezinezkoa zen. Bata edo bestea aukeratu behar genuen eta ez genuen zalantzarik egin.

Pertsona mordoxxa ere ezagutu duzue 12 urte hauetan. Kanpotik ikusita badirudi badagoela talde ugari, nolabaiteko arrakasta lortu duena, eta estilo desberdinak izan arren, kolaboratu eta harremantzeko joera handiarekin: Willis Drummond, Anari, Joseba B. Lenoir... Eta tartean zuek.

M. Narbaiza: Egia esan, orain oso modu naturalean egiten dugu, baina egia da 2005ean pentsaezina egingo litzaigukeela Anarirekin jotzea.

A. Mujika: Niretzat, adibidez, Felix Buff-ekin jotzeko aukera eduki izana izugarritzko zortea da oraindik ere. Egia da jende pila ezagutu dugula, ez bakarrik musikariak, baita borondatezko lanarekin gaztetxe eta antzekoetan programazioa antolatzen ari den jende asko ere. Horrek sostengatzen du gure zirkuitua, eta horietako asko lagunak ditugu orain.

M. Narbaiza: Hala ere, arrakasta esaten denean... ez dakit ba nik hala den. Uste dut badaudela talde gutxi batzuk jende

asko mugitzen dutenak, baina neurri batean, jendeak utzi diola zuzenekoetara joateari... Joaten gara festibaletara edo gustuko ditugun talde horiek ikustera, baina ez zer den ez dakigun talde hori ikusi eta ezagutzera, adibidez.

A. Mujika: Niri ez zait gustatzen jende gutxi mugitzen dela esatea. Baina egia da, adibidez, festibalak ez direla batere toki atsegin musikaz gozatzeko: jende gehiegi, prezio garestiak, artistak urrun... Gutxietsi egiten dira eszenatoki eta leku txikiak, baina niretzat, ia dena da hobea halako tokietan.

Telebistan ere zuen agerpena izan zenuen, Tumatzak saiorako hainbat kantaren bertsioak eginda. Nahikoa egiten du EITBk euskarazko musika eta sormena sustatzeko?

A. Mujika: Tumatzak oso ondo egin dako saioa zen, eta guri aukera ederra eman zigun: bai beste publiko baten-gana heltzeko, baita askatasun handiz sormen ariketa desberdin bat egiteko

ere. Azken aldian ETBn egin den gauza onenetakoa da, baina geroztik ezer gutxi... Uste dut ez dugula ezer berririk esaten, ETBrekiko etsipena adierazita. Hain gutxi gustatzen zait sustatzen duen eredia.

M. Narbaiza: Salbuespenak badaude. Lehen aritu gara, adibidez, Ur Handitan saioko musika hautaketa txalotzen. EITB Kultura Transit saioa ere badago, eta oso gauza txukunak egiten dituzte, baina gero desorduetan bakarrik ematen dituztenak.

A. Mujika: Azken finean, Euskal Herriko kulturaren erakusleihoa da, edo izan behar luke. Halako tresna indartsua izan, eta kulturari hain toki gutxi ematea, penagarria da... Zertarako eta Telecincoren pareko edukiak egiteko...

Arnasten ikasteko berriz ondorengo elkarriketa batean zenioten hurrengo disko bat prestatzen hasteko gogoz zinetela... Badago entsegu lokaletik atera gabe geratuko den abestirik?

M. Narbaiza: A bai? Ez dut gogoratzen. Ideia eta inprobisazio batzuk agian bai, baina abesti osorik ez da gelditu entzun gabe, ez... Gainera uste dut *Arnasten Ikasteko berriz*-etik kanpo ere ez genuela kantarik utzi.

A. Mujika: Lagatzeko erabakia hartu aurretik hasi ginen kanta bat prestatzen Bonberena Ekintzak-en 20. urteurrena dela-eta egin duten disko baterako. Baina horri forma ematen hasi ginenean erabaki genuen taldearen ibilbidea amaitzea.

Derrigorrezko galdera da: zergatik?

M. Narbaiza: Gauzek ez zutelako lehen bezalako naturaltasunez funtzionatzen. Biok sentitu dugu aldatu garela, egon garela bi urtez burua beste gauza batzuetan izaten, eta ni neu adibidez, berriz hasi naizenean saiakeran, desberdin sentitu naiz, beste gogo batzuekin. Hori konpartitu nuen Anderrekin eta naturaltasunez hartu dugu erabakia.

A. Mujika: Duela bi urte geldialdia egi-tea erabaki bagenuen izan zen nekatuta geundelako, behar genuelako arnas pixka bat. Bi urte horiek eta gero, ez genuen garbi zer egin, eta egin genuen proba. Ez dugu aurkitu lehen genuen konexio hori, eta ez zuen zentzurik esfortzu bat egin behar izateak...

M. Narbaiza: Errespetu eta maitasun handia diogu elkarri, eta hori horrela



» **MIREN NARBAIZA:**
“Orain nire proiektu propioan nahi dut sakondu, Mice-n: hurrengo udazkenerako diskoa prestatu nahi dut”

» **ANDER MUJIKA:**
“Anarirekin ari naiz jotzen, Jabier Muguruzaren disko berria prestatzen eta musikari lagunei kontratazio kontuak ere eramaten hasi naiz”

izanda, zintzotasunez jokatu eta uztea zen onena.

A. Mujika: Ez da erabaki dramatikoa izan. Jakin behar da bukaera ematen, gauza batzuk amaitzen, beste batzuekin hasteko. Gainera, itxiera ematea ere bada aukera bat atzera begira jarri, egindako lana baloratu eta eskerrak emateko.

Horregatik agur kontzertua...

A. Mujika: Bai, nahi diogu bukaera eman, guregatik, baina jendearekin eta jendearentzat ere bai. Berriz gozatu kanta horiek guztiak...

M. Narbaiza: ...eta merezi duen itxiera eman. Bikote batek harremana uzten badu batek ez duelako telefonoa hartzen, badago itxi gabeko zerbait. Guk, gozatuz, ospatuz, nahi dugu bukatu.

Napoka Iria ez da gehiago eszenatokietara igoko, baina zuek bai.

M. Narbaiza: Ni Drumkopters eta Perlak taldeekin nabil jotzen eta Joseba B. Lenoir Gang-en ere bai. Baina orain nire proiektu propioan nahi dut sakondu, Mice-n: indarrak horretan jarri eta hurrengo udazkenerako diskoa prestatu. Pauso handia da, baina badut gogo. Lehenengo aldia da izango da ni bakarrik, nire buruarekin eta nire buruaren kontra ariko naizena.

Eta zu, Ander?

A. Mujika: Orintxe bertan Anarirekin ari naiz jotzen, eta aldi berean, Javier Muguruzaren disko berria prestatzen. Musikari lagunei kontratazio kontuak ere eramaten hasi naiz, Amoranterekin eta abar, eta horrek ere hartzen dit denbora pixka bat... ■



Francisco Iturrino

Abangoardia halako bat

SENA, PARIS (1895-1898)

Olioa mihisean, 53 x 64 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Aita zuen Mutrikukoa, farozain bidali zuten Kantabriara, han jaio zen Francisco Iturrino Gonzalez (Santander, Espainia, 1864ko irailaren 9a - Cagnes-sur-Mer, Frantzia, 1924ko ekainaren 20a). Bilbon bizi izan zen oso gaztetatik. Gerora mundua izango zuen bizitoki, bizigarri, bizibide.

Liegen egin zituen ingeniarietza ikasketak, Belgikan, familiak hala nahita, eta 1895ean iritsi zen Parisera. Emaztea haurdun duela, pintore izatea erabakita. Hor dago, normala da, Notre Dame da liluratzen duena, sinbolo bat ordurako seguru asko, postal bat ere bai, hemen egon naiz, ikusi dut mundua.

Baina artistari askatasunaren alde egitea aitortu behar zaio. Zeru horiek, gorde gogoan zeru horiek.

Ez dira urte asko Van Goghek bere buruaz beste egin duela. Espresionismoaren urterik oparoenak urrun daude oraindik ordea. Paris bolborategia da, eztanda egiten du tarteka, joera berriak sortzen dira sarri-sarri, Toulouse-Lautrec bat, Vuillard bat, Bonnard bat; mugimenduak daude, aldizkariak, esfera publikoa artearen balioaz eztabaidan ari da.

Ambroise Vollard galeristak erakusketak eskaini zion, 1901ean, orduan inork ezagutzen ez zuen pintore batekin: Pablo Ruiz Picasso. Batzuk diote Picasso-

ren espainoltasuna azpimarratzeko baino ez zuela aukeratu Vollardek Iturrino. Berdin da. Ez da edozein. Vollard bera izan zuen erosle nagusia garai batean.

Aldaketa garaia da, aldatzen ari da Iturrino ere, ez dio estilo bati eusten itsu-itsuan. Eraginen arabera ari da hazten, batzuk nabarmenak dira: Cezanne, Matisse. Laguna du. Berekin egiten du bidaia Marokora. Liluratuta daukate argiak eta emakumeek. Tarteka paisaiak egiten ditu, Mutriku, Algorta, baina gehienbat figurak, emakumeak. Eta figurak diruditen jardinak, hangoak eta hemengoak, kolorez gainezka, fauvismoaren abisu. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Isiltasunaren geruzak



Iratxe Retolaza



Arrastoak

DEJABU PANPIN
LABORATEGIA

EHAZE, 2016

Duela hiruzpalau urte agertokietan gorputz harturiko *Arrastoak* antzezlanak, Dejabu Panpin Laborategiaren ibilbidean temati azaleraturiko egoerak jorratu zituen: (des) errotzeranzko bideak, isilduriko zauriek utzitako orbanak, memoria gorpuzteko ariketak eta abar. Liburuan geruzaz geruza azaleratu dira antzezlan hartan gorpuzturiko hainbat ikuspegi artistiko.

Gorpuztearen geruza. Lur protagonistak familiako zauri baten arrastoari segituko dio, ama hil berritan; bilaketa horretan bidaide izango ditu aita, Marga lankidea eta Roberto psikoanalista, eta etengabeak izango dira genealogia afektiboen inguruko hausnarketak. Antzezpeneren oihartzunak gogora etorrita ere, irakurraldiak pertsonaiak zein eszenak beste modu batera gorpuzteko aukera ematen digu irakurleoi: gorpuztak hurbilagotik eraikiko ditugu, edo bestelako perspektiba batetik; Bittori txotxongiloari jada hezur-haragizko gorpuzta irudikatuko diogu, eta abar.

Testugintzaren geruza. Euskal antzerki idatzi eta inprimatuak joera nagusi bati lotu zaizkio: antzerki-testua hartu izan da antzezpeneren abiaburu eta aingura. Antzerki-argitalpen gehienek, gainera, sari bat izan dute akuilu, eta kasu horietan, gehienetan antzerki-testu inprimatua baizik ez da hedatu. *Arrastoak* liburuan antzerki-testuaren beste ikuspegi bat hedatu da: testu dramatikoan antzezpeneren arrastoetariko bat baino ez da,

sormen-prozesuaren adarretariko bat baino ez. *Arrastoak* liburua, hortaz, antzezpeneren arrastoak biltzeko ariketa da; eta liburuaren bihotzean kokaturiko argazki-bildumak ere antzezpeneren uneen memoria biziberritzeko balio du (eta antzezpeneren bertan argazkiek ere memoria biziberritzen diete pertsonaiei).

Sortzaileen geruza. Antzezpeneren eta sormen-prozesuaren inguruko hariak eta oihartzunak ere bildu dituzte: besteak beste, sormen-prozesua suspertu duten esperientziak bildu dituzte (ametsak, galera pertsonalak, irakurgaiak, antzezpenerak, sortzaileak...). Oharretan bada nitasunik, baina esperientzia pertsonal horiek gutasun baten barruan kokatu dira, sormen kolektiborako pizgarri izan direlako.

Objektuen geruza. "Dramaturgiaren zirkuluak" atalean, poetikaren ardatzak aletzen dituzte, eta horietan azkena, "objektuen memoria": "Baina espazio baten sintesiaz gain, objektu horrek emozio bat ere ekar dezake". *Arrastoak* liburuaren irakurraldia amaitzean, halako sentsazioa izan dut: antzezpeneren memoriaren arrastoak objektu bilakatu dituela, emozio-kaxa bihurturik; era berean, erresonantzia-kaxa baten gisa, espazioan zein denboran (des)errotzearen inguruko emozio zein galdera berriak sortu ditu. Liburuak, beraz, adarkatzeak sortu ditu *Arrastoak* egitasmoan. ■

» TELEGRAMA

Udako jaiak badatoz eta horrekin batera kontzertu pila. Beste asko izango dira, baina guri arreta deitu digu Berrizen ekainaren 30ean antolatu dutenak: **Last Fair Deal**, **Niña Coyote** eta **Chico Tornado**, **Grises** eta Djak ariko dira Elizondo plazan **STOP Mikrofilm** festibalak seigarren edizioa beteko du ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Plentzian: film laburrak, kontzertuak, lehiaketak... **STOP Vodun** taldea zeresana ematen ari da Londresen azkenaldian eta Donostiako **Dabadaban** aukera izango da fenomeno horren zergatia ezagutzeko: uztailaren 1ean da zita **STOP**

» DISKOA

Gogoa eta lana erraldoiak badira...



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara



Aspalditik gatoz, urrutira goaz

ASKOREN ARTEAN

Bonberenea ekintzak, 2017

Tolosako Bonberenea Gaztetxearen inguruan eraikitakoa eguneroko lanaren emaitza da. Hogei urte pasa dira Bonberenea izenpean lehen Gaztetxea okupatu zutenetik eta hamabost Bonberenea Ekintzak plataforma egituratu zutenetik. Inguruko talde eta proiektuei zein umezurtz zeuden bidelagunei aukera eskaini zieten kalitatezko estudioa eraiki eta lanak plazaratzeko, bitariko konpromisoa, gertutasuna, gardentasuna eta profesionaltasuna bermatuz. Hala, Tolosako ekimenak lortu du, olatu komertzialetik at egonik ere, zeresana ematen dabilen talde multzoa bere katalogoan egotea. Aurretik kaleratu izan dituzten *Suffle* bildumatan egiaztatu dugu nolako komunitatea osatu duten, eta orain inguruan lanean dabiltzan hogeita bat talderen kantuak batu dituzte, ia guztiak aurretik argitara eman ga-beak. Ezagunek zein ezezagunek dute trataera bera; horixe eta talde berriei laguntzeko nahia baitira ezaugarri nagusienak, estiloetatik harago.

Bildumako lehen CDa gogorragoa da doinuaz, besteak beste, hardcorea etxearen historiaren alderdi garrantzitsua izan delako. Fer Apoak gidatutako Estricalla horren eredu. Desagertutako Camsa-ren ondoren bizirik dirauen 25th Coming Fire dator gero, eskola zaharreko hardcorearen zaindaria. Stanislav izenpean berpiztu da Ladislao hardcore-punka. Umi-

litate da Zarauzko crust-aren oinordeko; eta Anestesia eszena horretako basapizti hilezkorra. Eraso! zazpi bizitzako metal eta rock dotorezia. Humus aurre-Bonberenearen post-rock beteranotasuna. Zea Mays kamaleoen gisa berrasmutzen den musikazale amorratu koadrila. Sofa, esperimentazioa eta gaztetasuna. Anger arrazoi on baten alde hausnarketak dantzan jartzeko konfabulazioa. Eta, azkenik, sistema hau arrakaletatik eraginda ezandarazi nahi duen Matxura.

Bigarren CDak bestelako tonu eta doinuak ditu bere baitan: gazteak errimaz esnatzen dituen -a ze marka!- Glaukoma. Luzaroan gerizpean egonagatik distiratsu eta emankor darraien Libe. Ardo gisa onduta eta jantzi berri rockeroarekin Han! Bertsoetatik rockerako ibilbidea ziztu bizian egin duen Bi Bala. "Gutxiagorekin gehiago" filosofia barneratutako zakur zaharrak, Belarmiñak gisa. Historiako lezioak modu itsaskorrean gure egiten maisu Fiachras. Dantza, parranda eta adarjotzea batzen duen Ze Esatek. Belaunaldiz belaunaldi espiritu gazteari eusten dion Atila y Los Unos. Bonberenea Txaranga eta Sofabeltz: estilo eta formatuetatik harago, sorkuntza askea! Goazen dantza iraultzera: Anai Arrebak. Eta adin zein bestelako egitura zurrunei barre egiten dien Pirritx, Porrotx eta Marimotots su txikiei duten garrantzia aitortuz. ■



Kontrolpean eta zaratarik atera gabe

BESAULKIAK

Ekainaren 17an Markiña-Xemeingo Uni Frontoian eskainitako emanaldia.

Zuzendaria: Ander Lipus. Gidoia: Gotzon Barandiaran. Ekoizpena: Abarka Antzerki taldea.

Aktoreak: Rakel Anitua, Luis Egurrola, Lur Epelde, Nerea Foruria, Nagore Leon, Ruben Markina, Amalia Marti eta Gilen Santiso.



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Ale Goikoetxea

Eszenatokia iluntasuna eta egurrezko kutxa misteriotsua erdi-erdian. Herriko jendea urduri lagun, senide eta herriko ezagunak ikusteko antzoki bilakatutako frontoian, denbora luzez prestatutako antzezlanaren emanaldian. Gaurko lehian baina ez da gorria edo urdina gailendu, gaurko emanaldian kolore grisak hartu du frontoia.

Kontrolpean nahi eta behar gaituzte Gotzon Barandiaranek asmatutako fikziozko herri euskaldun honetan. Lanerako gogotsu eta prestu, gainerako orduetan lokartuta, eta deskantsuan askoz hobe. Isilik eta zaratarik atera barik. Horretarako guztiontzako besaulki berdina ekarri ditu agintariak. Protesta eta kexarako abagunerik ez dago, gal-

derak ere gutxi eta kontestutik larregi aldendu bakoak, obediencia zor zaie goiko agintariei. Herritarrek otordurako erosi behar dutena erabakitzeke esku-menik ere ez dute herri honetan. Esker-rrak baina hainbeste obediencia artean inkonformistak ere badirela.

Talde amateurra izanagatik ere landutako antzerkia izan da Markiña-Xemeinen ikusteko aukera izan duguna. Traba eta erratak dotoretasunez estali dituzte aktoreek inprobisazioari helduta. Ander Lipus izan da Abarka antzerki taldearen lana zuzentzearen arduraduna. Taula gainean zuzendariaren estiloa ere nabarmendu da, alkatearen pertsonaia Lipusetik nahiko gertu ikusi dut behintzat. Aipamen berezia egingo nieke aul-

kiei, besaulkiei, eserlekuei, butakei... antzerkia modu esanguratsu eta dotorean janzteagatik, narrazioaren hariari laguntza emateagatik.



Antzezlanak aurretik irakurritako hainbat liburu eta pelikula ekarri dizkit gogora. Horien artean, George Orwell-en 1984 nobela. Kontrola, agintea eta jendartearen pasibotasuna. Lasaitu ederra hartu dut behintzat, Euskal Herriko herri bitxi honetan txoriak txioka entzun eta oiloak bizirik ikusi ditudalako, hemen natura pixkat gehiago mires-ten edo maitatzen dugu nonbait.

Ikusleok, guztiok eserleku berdinetan eserita, hausnarketarako tarte hartu dugu: kasualitatea ote istorioan azaltzen den bizidun bakarra oiloa izatea? ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Graça Samok, Emakumeen Mundu Martxako koordinatzaileak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.


8						1	5	
				4	8		3	6
			7			2		
1	4	5	8		3			2
	2	7			8	9		
3			2		6	5	4	1
		1			2			
2	8		4	6				
	3	6						8

				3			6	7
		7			2	4		
			8		9			1
4						2	6	
	2		5		6		7	
3	9							8
8			3		1			
		9	7			8		
7	1			9				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Irekigunea. 2. Urrin. 3. Hainbat intsekturen kume, har itxurakoa. 4. Nafarroako ibarra. 5. Azkoitiko abeslaria.



Hizki berak

Osa itzazu hitzak falta direnak hizki berak direla kontuan izanik. Hori bai, hurrenkera ez da zertan bera izan.

1				I	N	K	O	R
2	A		M	A	K	A	R	I
3	E	T				I	N	A
4	D	E	S				I	A
5	E	G	I	T				O
6	F	A	N	T	A			

Ebazpenak

7	1	4	2	9	8	6	3	5
5	3	9	7	6	4	8	1	2
8	6	2	3	5	1	7	9	4
3	9	6	1	2	7	5	4	8
1	2	8	5	4	6	3	7	9
4	7	5	9	8	3	1	2	6
9	5	7	6	1	2	4	8	3
6	4	3	8	7	9	2	5	1
2	8	1	4	3	5	9	6	7

Puzzlea: "Merkataritza askeko akordioaren ondorioz, emakumeek beren lurrak galduta dituzte, bai eta beren enpleguak ere; lana edukita ere, oso kalitate baxukoa da".
5x5: 1. Zuloa. 2. Usain. 3. Larba. 4. Oibar. 5. Anari.
Hizki berak: 1. Saminkor. 2. Asmakari. 3. Etsamina. 4. Desmasia. 5. Egitasmo. 6. Fantasma.

Kepa Ruiz-Mirazo. Biziaren sorreraren gakoak argitu nahirik



Lan ildo bikoitza du Kepa Ruiz-Mirazo (Gernika, 1970) EHUko ikertzaileak. Batetik, Leioako Biofisika Unitateko laborategietan bizia sortu aurreko urratsak erreproduzitzen saiatzen da; bestetik, bizia bera zer den hausnartzen du Biologiaren Filosofia ikertaldean. Beraren lantaldea Montpellierreko Unibertsitateko beste batekin elkarlanean ari da, bizia sortu ahal izateko molekulak nola elkartu ziren aztertu nahian.

“Gaur egun Lurrean dugun bizia oso konplexua da eta ez daukagu argi zergatik”



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIAK: INIGO AZKONA

Urte “sabatikoen” balioa

“Nire karreraren bi etenaldi nagusi egin nituen: lehenengoa institutua amaitu eta gero, unibertsitateko ikasketak aukeratu ezinean, eta bigarrena lizentziatura burutu ondoren. 17 urterekin Erresuma Batura joan nintzen ingelesa ikasi eta zalantzak argitzera; eta 24rekin Belgikara, zientziaren irakaskuntzari buruzko europar master baten aitzakian. Atzerantz begira, bi urte ‘sabatiko’ horiek beharbada nire prestakuntzan garrantzitsuenak izan zirela konturatzen naiz. Ez dago hainbeste-ko presarik. Bakoitzak erabaki behar du, patxadaz eta burujabetasunez, bere bizitzaren norabidea”.

Bizia sortu zeneko faktore berak birsortzea da zuen helburua. Ondo esan dut?

Jakin nahi dugu zer nolako osagaiak izan ziren lehenengoak. Pentsatzen baduzu bizia zer konplexua den eta zer nola-ko makromolekula erraldoiak dauzkan: DNA, RNA... Oso molekula handiak dira, eta sortzeko zailak. Guk *bottom-up* hurbilketa egiten dugu, behetik gorakoa. Badago goitik beherako planteamendua ere, *top-down*. Kontua da noiz elkartuko diren biak, oraindik oso urrun daude. Eta uste dugu *bottom-up* ildoan lar sinplifikatu dugula orain arte; biziaren sorrerari buruzko ikerketetan oso ohikoa da molekula mota bakarrari erreparatzea, “biziaren molekula” aurkitu nahian. Baina bizia osagai askoren arteko jokoa da. Gero eta gehiago molekula multzoak kontuan hartuta egiten ari dira ikerketak; ikuspegi aldaketa ematen ari da.

Zuek kimikaren mailan ari zarete ikeretzen. Hortik biologiaren konplexutasunera distantzia handia dagoela diozu.

Bai, gaur daukagun bizia, Lurrean behintzat, oso konplexua da, eta zientzialariok

ez daukagu argi oraindik zergatik den hala. Horren arrazoia jakin nahi dugu.

Horretarako biziarenak baino molekula sinpleagoetatik ari zarete tiraka: peptidoak, gantz azidoak... Erraz esplika daiteke zer lortu duzuen laborategian?

Sinergia bat lortu dugu aitzindari molekular horiekin, alegia gantz azidoekin eta peptidoekin. Batera jartzean, gantz azidoek konpartimentu itxiak sortu zituzten, mintz funtzioa dutenak.

Ez dirudi horrek biziarekin lotura handia duenik...

Dipeptido bat sintetizatzea baino ez dugu lortu, eta bada esaten duenik: “Gu RNA aztertzen ari gara, eta horrek bai biziarekin lotura”. Noski, baina zelan heldu RNAraino? Ez dute azaltzen, ez dakite. Beste batzuk, berriz, RNA osagai sinpleetatik osatzen saiatzen ari gara, nahiz eta oso urrun gauden oraindik. Gure hipotesia da molekula-sistemak hasieran autonomo bihurtuko zirela, eta hortik gero gaurko konplexutasunera iritsiko zirela. Sistema autonomoak dira



"Ez daukagu ziurtasunik, baina uste dut, Lurrean orain 3.500 milioi urte zeuden baldintzak beste planeta batean edukiz gero, bizia agertzeko aukera asko legokeela".

nolabait osagaiak ekoizteko protometabolismo bat dutenak, baina oraindik DNA, RNA eta halakorik gabe.

Bizia orain 3.500 milioi urte inguru agertu zen Lurrean. Autonomiaranzko pauso hori askoz lehenagokoa da?

Ez. Kontuan izan behar da Lurra bera ez zela askoz lehenago osatu: duela 4.500 milioi urte. Eta hasierako baldintzak gogorak ziren: bero handia, ur likidorik oraindik ez, meteoritoak... Lurra epeldu eta baretutakoan sortu zen bizia. Gakoa da laborategian birsortzen ditugun sistema autonomoek koherenteak izan behar dutela Lurraren hasierako baldintza geologikoez dakigunarekin.

"Inoiz ez gara iritsiko biziaren sorrera ebaztera", esan duzu.

Zentzu batean, historikoki, ezin izango dugu jakin zein izan zen ibilbide zehatza, baina uste dut gai garela oro har gertatu ziren etapak karakterizatzeko. Lurreko bizidun guztiok jatorri bera dugu eta hori nola gertatu zen jakin nahi dugu.

Demagun Lurrean orain dela 3.500 milioi urte zeuden baldintza berdinak daudela beste planeta batean. Nahitaez agertuko litzateke bizia?

Ez daukagu ziurtasunik, baina uste dut aukera asko legokeela. Dena den, gu zientifikoki ari gara gaia aztertzen, eta horrek premisa bat dakar: beste norbait emaitza errepikatzeko gai izango dela, bestela metodo zientifikoa bera pikutara doa. Orduan, zenbateko eragina duen zorteak... Apustua da baietz, baldintza orokor batzuk betez gero biziaren sorrera-prozesua errepikatu ahal dela.

Zergatik ez da errepikatzen Lurrean bertan?

Darwinek esan zuen: behin planeta kolonizatuta, biziak ez du uzten bizia berriro agertzen. Laborategian bakarrik sor genezake zerbait artifizialki, hor kanpoan dena beteta dago eta. Mikroorganismo asko dago, leku guztietan. Harkaitza zulatu eta bi kilometroko sakoneran bizia dago. Bestalde, orain oxigenoa daukagu, atmosfera oso desberdina da... Lurraren eta biosferaren arteko elkarrekintza ikaragarria da, biziak zeharo aldatu du Lurra.

Bizigabe eta bizidunen arteko muga argia da? Birusak datozkit gogora.

Birusak ez dira bizidunak nire ustez, energetikoki ez direlako autonomoak, oso konplexuak izan arren. Parasitoak dira. Birusak biziaren sorreran zehar garatu ziren, baina ez zuten prozesua bultzatu.

Ondorioz, eta galderara itzulita, bizidun eta bizigabeen arteko muga argia da?

Zientifikoki landutako eredu oso bat edukiko bagenu, kimikatik biologiaranzko urrats guztiak ondo zehaztuta, muga zehazki non dagoen esatea ez litzateke erraza. Baina orain oso argi dago muga, bizidun sinpleenak izugarri konplexuak baitira bizigabeekin konparatuta, aldea oso nabarmena da.

Galdera zaila da ea zergatik ematen den batetik besteranzko urratsa.

Oso zaila da, baina hasieran zer sistema egon zen aztertu dezakegu eta agian zergatia berez argituko da. Hori da nire helburua: bizia zer den ulertzeko aztertzen dut biziaren sorrera. ■



Gipuzkoako Diputazioan jo eta su ari dira euskara plana baliogabetzen duen epaiaren aurkako helegitea prestatzen

Gipuzkoako Foru Aldundiak eraso larritzat jo du herrialdeko euskara planeko bost artikuluko bertan behera uzten dituen EAEko Auzitegi Nagusiko sententzia. “Langileen erdia Hernaniko San Joanetan ditugu eta beste erdia oporretan pentsatzen, has zaitez orain helegiteekin eta ostiekin”, kexatu da diputazio-ko kontu juridikoetako arduradun Miren Agurne Txostenegi; “hala ere profesionaltasun osoz beteko dugu geure eginkizuna kubata eta kubata artean”, iragarri du.



Euskara plana indar biziz defendatzen dabilen/dabiltzan abokatua(k), ondo merezitako bost minutuko atsedentxo hartzen.


Mihi gaiztoen esanetan Aldundiak ez du berebiziko ahaleginik egingo EH Bilduren agintepean ezarri zen plana defendatzeko, baina funtsik gabeko zurrumurruak besterik ez dira eta abar.

SAREAN ARRANTZATUA

Euskaltegiak kolapsatuta, Beltran de Heredia eta ETArri esker



Comuniquenosloarekin alergikoak gara



Bilboko Udala: “Jakina Ibaizabalen bainu hartzea segurua dela, baina ahoa itxita, demontre”

Alarma sortu da hiru triatleta, Ibaizabalen igeri egin ostean, izen arraroko infekzio gaizto batekin kutsatu direla jakindakoan, baina Bilboko Udalak giroa baretu nahi izan du, zentzu komune-ko pare bat azalpen emanez: “Berretsi egiten dugu itsasadarraren egoerak ez duela inolako zerikusirik Athleticen ga-barra ateratzen zuen garai loriatsukoa-ekin alderatuta, gure alderdi... barka, administrazioak egindako txukunketa lan modernoek esker”, adierazi du Itsa-

sadarraren Garbitasunerako zinegotzi Ibai Urberuaga Txankletegek, “baina aizue, zenbat aldiz esan behar dugu bainatzekotan ura ez irensteko?”.

Gaixotutako hiru kirolariak hiriburu-ko erietxe batean artatzen ari dira, aspirina, kalimotxoa eta Bilboko Ura konbinatzen dituen tratamendu baten bidez. Lehenbailehen alta ematea espero dute, oheak libratu behar dira eta.



Bilboko uraren onurez informatzeko Udalak abiatu duen kanpainarako irudia.



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

SANFERMINETAKO

KAMISETA



EUSKARAZ? BAI, ESKERRIK ASKO! **JAKINA!**
PLAZER HANDIZ!

SALNEURRIA: 8 EURO! ESKUETATIK
DAKENZKIGUTE!

SALTOKIAK: KARRIKIRI, ZALDIKO MALDIKO,
KATAKRAK ETA NABARRERIAKO MESON

EUSKALERRIA IRRATIAREN KAMISETA SOINEAN,
IBILI IRUÑEAN!

